

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

**HISTORIAREN FUNTZIOAREN
ETA ERABILGARRITASUNAREN
AZTERKETA DIDAKTIKATIK
ABIATUZ**

MASTER AMAIERAKO LANA

Egilea: Etxahun Aurkenerena Arbelaitz

Tutorea: César Layana Ilunadin

2013-2014

Izenburua: Historiaren funtzioaren eta erabalgarritasunaren azterketa didaktikatik abiatuz.

Ikaslea: Etxahun Aurkenerena Arbelaitz

Zuzendaria: César Layana Ilundain

Masterra: Bigarren Hezkuntzako Irakasle Formakuntzarako Unibertsitate Masterra.

Zentroa: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

AURKIBIDEA:

ESKER ONA	5. or
1. SARRERA	5. or
a) Ikergaia	5. or
b) Aurrekariak	6. or
c) Helburuak	7. or
2. HISTORIOGRAFIAREN EKARPENAK	8. or
2.1. ZER DA HISTORIA	8. or
2.2. HISTORIAREN FUNTZIOA ETA ERABILGARRITASUNA	10. or
3. METODOLOGIA	23. or
4. INFORMAZIO ITURRIAK	24. or
a) Klase praktikoak	25. or
b) Galdetegia	29. or
c) Ikasle zenbaiten erantzunak	30. or
5. IKASLEEN ERANTZUNEN AZTERKETA	31. or
5.1. ZER DA HISTORIA	31. or
a) Klaserik eman ez nien ikasleen ikuspegia	31. or
b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia	32. or
5.2. HISTORIAREN ZAMA GAUR EGUNA	32. or
a) Klaserik eman ez nien ikasleen ikuspegia	32. or
b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia	33. or
5.3. HISTORIAREN FUNTZIOA ETA ERABILGARRITASUNA	33. or
a) Klaserik eman ez nien ikasleen ikuspegia	34. or
b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia	35. or
5.4. HISTORIA IKASGAIAREN INTERESA	35. or
a) Klaserik eman ez nien ikasleen ikuspegia	36. or
b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia	36. or

6. ONDORIOAK	36. or
6.1. HISTORIAREN FUNTZIO ETA ERABILGARRITASUNA	37. or
a) Iragana ezagutzea	37. or
b) Oraina ulertzea	38. or
c) Historia legitimazio tresna	40. or
d) Etorkizunari begira baliagarria	41. or
e) Kolektiboa eta indibidua ulertzeko tresna	42. or
f) Historia ez da denontzat	43. or
6.2. HISTORIA ULERTZEKO IKASLEAREN IKUSPUNTUA	44. or
a) Historia politikoaren nagusitasuna	44. or
b) Historia: memorizatzea vs azaltzea	46. or
c) Ikasleen interesa	46. or
7. BIBLIOGRAFIA	47. or
8. ERANSKINAK	50. or

ESKER ONA:

Aldez aurretik mila esker Toki Ona institutuari eta bertako langileei. Bai egin diguten harrera onagatik eta eskaini dizkiguten baliabide eta laguntza guztiengatik. Mila esker gure tutore Jose Javierri, Gizarte Zientzietako departamentuko kideei eta gainerako klase edota bileretan parte hartzen utzi digutenei ere: Jabitxu, Regina, Maria, Jasone, Juanjo, Aintzane eta besteri emandako laguntza eta erraztasunengatik. Amaitzeko esker bereziak lan guztian zehar aholkatu eta lagundu didan unibertsitateko tutore César Layanari.

1. SARRERA:

a) Ikergaia:

Lan honetan historiaren funtzio eta baliagarritasunaz diren iritziak eta hausnarketak aztertu nahi izan ditut. Hau da, historiak zein funtzio duen eta zein erabilpen ematen ahal diogun historiari, bai kolektibo bezala, hots, gizarte mailan eta baita indibiduo mailan ere.

Hori ikertzeko, institutueta DBH 4. mailako eta Batxilergoko ikasleen iritziak izan ditut abiapuntu. Ikasle hauek gizartearen ordezkari bezala jaso ditut.

Bestetik, historiari zein funtzio eta erabilpen ematen dioten ulertzeko, ikasle gazte hauek historia bezala zer ulertzen duten ezagutu behar izan dut, baita historiari zein interes antzematen dioten ere.

Hortaz, historia zer den, historiaren presentzia gaur egunean eta historiari zein interes ikusten dioten aztertuta, hausnarketa eta ondorio gehiago burutu ahal izan ditut historiari esleitzen dioten funtzio eta erabilgarritasunaz.

Bestetik, korrante historiografiko ezberdinek ere gai hauen inguruan egindako hausnarketak aztertu ditut, institutueta erantzunekin alderatu, ondorioak eskuratu eta hausnartu ahal izateko.

Gai hau interesgarria iruditzen zait historiak guregan, bai kolektiboan zein indibiduoan, egiten duen ekarpenaz kontziente izan gaitezen.

Iruditzen zait bai gizarteak eta baita institutueta ikasleek ere gutxietsi egiten dutela, edota ez direla ohartzen historiak pertsonalki zein era kolektiboan egiten digun ekarpenaz. Historia iraganeko gertaeren zein jakintzen oroitze huts gisa ulertzen dute ikasle eta pertsona askok. Aldiz, gutxi ohartzen dira historia erabilgarria zaigula baita orain ere, eta baita denoi ere.

Gainera, historialarien artean ere askok gizarteak duen pentsaera hori dute. Mexikoko José Miranda historialariak esandako hau dugu, adibidez: *“El conocimiento histórico no sirve para resolver los problemas del presente; no nos inmuniza contra las atrocidades del pasado; no enseña nada; no evita nada; desde el punto de vista práctico vale un comino”*¹.

Garrantzitsua iruditzen zait historia zergatik praktikoa eta erabilgarria izaten ahal zaigun hausnartzea, hausnarraraztea, aztertzea eta hori azaltzeko gai izatea.

b) Aurrekariak:

Gaur egungo mundu akademikoan Natur Zientziek Gizarte Zientziek baino indar gehiago dutela iruditzen zait. Behin, posizio honen barnean, Historiak iragana ezagutzeko eta ulertzeko erabilpena eta erabilgarritasuna dueneko iritzia nagusi dela errango nuke.

Gainera, historia hausnarketarako eta iritzi kritikoa sustatzeko ikasgai bezala proposatzen den arren, memorizatzean oinarritutako ikasgaia bilakatzen da. Ondorioz, hausnarketa landu arren, iritzi kritikoa landu zitekeen neurrian baino apalagoan sustatzen dela iruditzen zait. Eta, izan ere, historiak, hain zuzen ere, honetarako balio duela uste dut.

Gaur egungo gure gizartean, Gizarte Zientzien erabilgarritasuna, funtzioa eta interesa nabarmendu nahi ditut, eta ikasleak historiak, besteen artean, duen erabilgarritasun eta funtzioaz ohartarazi nahi ditut. Jakina, lan hau institutuetan burutzen da, baina zenbait puntu gehiago susta litezkeela pentsatzen dut.

Batetik, institutuetakoa ikasleek, zein gizarteak oro har, historiaz nahiko ikuspegi mugatua duela iruditzen zait. Hau da, historia iraganeko oroimen gisa ulertzen dute zenbaitek. Nire ustez, historia hori baino askoz gehiago da. Historia iragana, oraina eta etorkizuna ulertzen saiatzeko tresna da. Jakina, iragana ezagutzeko balio duena, baina gaur egungoa ulertzeko ere bezain garrantzitsua dena.

Hortaz, ikergaiaren arlo zentralari dagokionez, zenbait ikaslek historiari erabilpenik topatzen ez diotela hausnartu nuen. Ikasle gehienek historia ikasi, memorizatu eta azterketak egiteko baizik balio duen ikasgai bezala ikusten dutela planteatu nuen. Edota gehienez, kultura orokorra izateko balio duela. Historia ikasle anitzek ikusten duten teorizazio eta memorizatze politiko huts horretatik landakoa dela azaldu nahi dut. Historia soziala, historia orokorra, historia hurbila (familiak, inguru eta testuinguru hurbilekoa), historia politikoa bera, erlijioso eta sinesmenena, kulturala... Historiak fazeta anitz ditu eta hori azpimarratu beharra dagoela iruditzen zait.

¹ PEREYRA, C.; VILLORO, L; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* Siglo XXI. Madril. 55. orria.

Erabilpenei gagozkienez, historiak gizarteari iragan kolektibo hori oroitzeko balio diola erantzungo dutenaren ustea nuen. Baina indibiduoari, norbanakoari dagokionez, ikasle gehien gehienek historiak deus askotarako balio ez diela erantzungo zutelakoan nago. Hortaz, historiak gure inguruan, guk ezagutzen dugun munduan duen eragina eta gure inguru hurbilean (guregan, geure familian, lagunartean, gure herrian) bertan duen eragina ere azpimarratu beharra izango dudala uste dut, horren inguruko hausnarketak bultzatuz.

Ikerketa honetan hori ikertu nahi dut. Ikasleek zein ikuspegi duten ikusi nahi dut, nire ustez, biziki mugatua izanen dena. Eta horri aurka egin nahi diot, nire usteak bultzatuz.

Nire iritziz, historiak gaur egungo egoera ulertzeko garrantzia handia du. Ikasleak hausnarketa horietara bultzatu nahi ditut. Era berean, historiak etorkizuna antolatzeke izan dezakeen garrantziaz ohartarazi nahi nituzke.

Bestalde, nire ustez, historiak gizarteari funtzio horiek betetzen laguntzen ahal dion bezalaxe indibiduoari ere laguntzen ahal dio inguru hurbilago batean: norberaren familia ulertzen, norberaren sinesmen eta pentsamenduak nondik heldu diren ulertzen etab. Azken batean, norbera nor den ulertzen.

c) Helburuak:

Batetik, Master Amaierako Lan honen helburua historiak zein erabilgarritasun eta zein funtzio duen aztertzea da eta horien berri eman ahal izatea. Erabilgarritasun eta funtzio hauek gizarteari zein indibiduoari onuragarriak dira. Eta horiek azaldu nahi ditut.

Bereziki historiak gaur eguna ulertzeko eta gure ingurua ulertzeko duen garrantzia frogatu nahi dut, eta ikasleek horretaz duten kontzientzia eza. Hortaz, hori landu beharra azpimarratu nahiko nuke.

Bestetik, historia bezala oso ulerpen mugatua dugula erakutsi nahi dut. Historia iraganaren ezagutza baino, iragana behatuz oraina eta etorkizunari begira erabilgarria den tresna dela frogatu nahiko nuke. Eta ideia horiek ikasgeletan garatu beharrezkoak direla erakutsi, ikasleek hausnarketa hauek ez baitituzte maiz egiten.

Bestetik, institutuetao ikasleek, gizartearen ordezkari bezala, historiaren erabilgarritasun eta praktikotasunaz ohartzeko dituzten zailtasunak azaleratzea litzateke. Nire ustez, existitzen diren zailtasunak baitira, baina ikerlanean konfirmatu edo ukatuko ditut nire uste horiek.

Era berean, institutuetao historia ikasgaiak ikasleengan duen interes maila aztertzea eta egin litezkeen hobekuntzak aipatzea nuke helburu. Baita hausnarketa eta iritzi kritikoa gehiago landu behar diren ikasgaia dela frogatzea, eta memorizatze hutsetik baztertu beharreko ikasgaia dela.

2. HISTORIOGRAFIAREN EKARPENAK:

2.1. ZER DA HISTORIA:

Lehen atal hau ez nuke gehiegi sakondu nahi. Izan ere, hau ez da nire Master Amaierako Lanaren ildo. Aldiz, ezinbesteko antzeman dut gaiari sarrera egiteko. Zer diote adituek dela historia? Hau aztertzea garrantzitsua izanen da, ondoren ikasleen ikuspegia aztertu ahal izateko.

Mende luzez eta zehazki XIX. mendetik aitzina adituak ere ez dira adostu Historia nola egin behar den eta Historia zer den. Historiografian eztabaida luzeak izan dira horren inguruan. Hortaz, ikasleen kasuan are eta normalagoa da afera hauek argi ez izatea.

Historia gisa zer ulertzen dugun azaltzea zaila da, Historia era eta puntu ezberdin anitzetatik ulertzen ahal baita.

Diziplina ezberdin anitzek aztertzen dute Historia, eta diziplina anitz hauekin elkarlan etengabean da Historia. Izaki mota ezberdinek eta munduaren zein unibertsoaren Historia, historia natural gisan ezagutua, zientzia naturalek aztertzen dute, esaterako.

Hala ere, argi dago guk aztertzen dugun Historia gizateriarekin eta gizartearekin lotuta dagoela. Gauza da, hastapena emateko gertakizun konbentzional bat hautatzen dela, idazkeraren agerpena, kasuan. Oro har, esaten ahal dugu Historia iraganeko guztia dela, eta era berean, Historia orainean amaitzen dela.

Erraten ahal da, Mendebaldeko munduan lehenengoz kronista grekoak hasi zirela iraganaz idazten. Nagusiki mitoen eta iraganeko gertakizun errezitatuen bidez. K.a. V.ean Herodotok iraganeko gertakizun errealak soilik aztertu nahi izan zituen, eta horregatik, Historiaren aitatatzat jo izan da. Tuzidides, Jenofonte eta beste historialariak agertuz joan ziren ondoren. Erromatar historialariek greziar bidea segitu zutela erraten ahal da. Ondoren, Erdi Aroan iturrien ikerketa biziki lotuta egon zen eliz munduarekin edota eliteen agintearen munduarekin. Garai modernoan, berriz, historiaren iturri berriak zabaldu ziren, epigrafia esaterako, baina gainerakoan, aitzineko ildoari segitu zitzaion. XVIII. mendean, aldiz, argiaren mendean intelektuaren planteamendu kritikoak aldaketak eragin zituen, izpiritu kritiko berria lantzen hasi zen. Iritziek zama handia hartu zuten historia lantzeko garaian.

Finean, errotoak aldaketa XIX. mendean iritsi zen. Historia lantzeko zein ulertzeko era aldatu egin zen, eta korrante ezberdinen agertzea eragin zuen honek: positibistak, historizistak, marxistak, Annales eskolako belaunaldi ezberdinak, Historia Kulturala, eta beste korrante andana bat.

Historia era ezberdin anitzetan ulertu eta landu izan da. Hori ikusten ahal dugu Historiografian. Historian zehar izan diren historialariek iraganeko gertakizunak ikertu eta

aztertu nahi izan dituzte, hala ere, XIX. mendera arte ez zen metodo zientifiko bat definitu. Hortaz, mende horren aitzineko historialarien lanek, ordura arteko bigarren mailako iturriek, ez diote ikerlan metodo zientifiko bati jarraitzen. Hala, XIX. mendetik aitzina korrante metodologiko ezberdinak hedatu ziren historiografian.

Batetik Comte eta gainerako positibisten ideiak genituzke. Historia objektiboa defendatzen zuten. Datu erreal hutsen bilaketa hutsa. Historialarien lana datuak biltzean oinarritzen zuten, eta interpretazioa guztiz baztertu. Gizartearen funtzionamendua ulertzeko lege orokorrak aurkitu nahi zituzten hauek.

Beste alde batetik, eskola marxista genuke, eta tartean, Carr-en ideiak aipa genitzake. Historia historiagilearen buruan berregituratzen dela aipatzen zuen. Historia guztiak garaikideak dira, eta Historia guztia, pentsamenduen Historia da. Collingwood-ek ere Historia historialariaren buruan berriz bizitakoa jotzen du. Egile hauek aipatzen zuten Historiarik ez dela historiagilerik gabe². Carr eta Collingwood-en ideiek, ordea, eztabaida sortzen dute. Nolatan liteke orduan Historia objektiborik existitzea? Carr-ek honela definitzen zuen Historia: *“un proceso continuo de interacción entre el historiador y los hechos, un diálogo sin fin entre el presente y el pasado”*³.

Baina, Carr eta Collingwood-en interpretazioaren ikuspegi horrekin, zein positibistekin ere denak ez datoz bat:

*“No es posible la investigación sin la teoría, y la poca exigencia teórica del historiador irrita con razón al filósofo. Pero tampoco puede haber teoría sin investigación, o el teórico no tardará en verse acusado, como no hace mucho lo fue el economista, de manejar cajas vacías”*⁴.

Annales eskolako Febvrek, berriz, Historia gizakiak, gizaki guztiak, denboran zehar ulertu eta aztertzen zituen zientziazat jotzen zuen⁵.

Le Goff-ek, berriz, bizitako Historia eta eraikitako Historia bereizten zituen. Hau da, benetan gertatu zen errealitate historikoa, batetik, eta bestetik, historialariaren interpretazio bidez eskuratzen den ezagutza⁶.

F. Dosse, P. Pagès, O. Dumoulin... beste egile andana bat hauta liteke Historiaren inguruko azalpenen inguruan mintzatzeko. Baina ez dut gehiago sakonduko, nire lanaren erraiei eusteko.

Hemen aurkeztu ditut korrante ezberdinetako hausnarketa gutxi batzuk. Izan ere, hurrengo atalean gehiago sakonduko dut. Baina ideei aniztasun hau, pentsaera eta hausnarketa

² CARR, E.H., 1983. *¿Qué es la Historia?* Editorial Ariel. Bartzelona. 40. orria.

³ Ibidem. 51-53. orriak.

⁴ VILAR, P., 1974. *Historia Marxista, historia en construcción*. Anagrama argitaletxea. Bartzelona. 45. orria.

⁵ FEVBRE, L., 1974. *Combates por la historia*. Ariel argitaletxea. Bartzelona.

⁶ LE GOFF, J., 1991. *El orden de la memoria. El tiempo como imaginario*. Editorial Paidós. Bartzelona.

gutziz ezberdin hauek ezartzen ditut Historia zer den eta Historia gisa zer ulertzen den azaltzerakoan egile eta historialari ezberdinek zituzten eztabaida eta ikuspuntu ezberdinen froga gisa.

2.2. HISTORIAREN FUNTZIOA ETA ERABILGARRITASUNA:

Historiaren funtzioa zein eta erabilgarritasuna Historia bera ulertzeko eraren arabera aldatuz joan da. Hortaz, iritzi, ikuspegi eta funtzio ezberdinak izan ditu Historiak. Cristina E. Guerrak honakoa dio: *“El objeto de estudio cambia y también lo hace la forma en que los historiadores realizan su tarea. Asimismo la función de la Historia varía en el tiempo”*⁷. Horregatik garrantzitsua da Historia egiteko forma ezberdinak aztertzea, hau da, historiografia aztertzea. Izan ere, Historiaren funtzioa aldagarria da Historia bera ulertzeko eta lantzeko moduaren arabera.

Historia tresna erabilgarria edota jakinduria hutsa ote den hortik abiatu izan dira hausnarketak: *“Por lo demás, me es odioso todo aquello que únicamente me instruye, pero sin acrecentar mi actividad o animarla de inmediato”*. Goethek errandako honi arrazoia emanaz Nietzschek gehitzen du: *“por qué la enseñanza sin vivificación, por qué únicamente la historia como preciosa superfluidad del conocimiento y artículo de lujo ha de resultarnos seriamente odiosa”*⁸.

Hau da, Historia ez da iraganaren ezagutza hutsa izan historiografiako korronte guztientzat. Historiaren funtzioa eta erabilgarritasuna hortik landa doa aunitzentzat, orain aipatuko dudanez.

Hortaz, egokiena kronologikoki historia lantzeko garaian izan diren korronte historiografikoei jarraiki ezagutzea izanen da.

Idazkera sortu zenetik, historia irabazleen ikuspegitik idatzi izan zela zein eliteen ikuspegitik idatzi izan zela aipatzen da, mendebaldeko munduari dagokionez: konkistatzaileak, printzeak, erregeak, lider politikoak... Gibelean gelditu dira herri garaiak, Ameriketako indigenak esaterako, edota Erdi Aroko nekazari xumeak eta beste. *“Por eso urge reescribir toda la historia, incorporando de manera orgánica y sistemática dentro de su trama a todos esos grupos y clases subalternos (...)”*⁹.

⁷ GUERRA, C.E., *Modelos epistemológicos y metodológicos en el desarrollo de la historia*. <<http://www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/sites/www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/files/site/Modelos%20Epistemol%C3%93gicos%20y%20Metodol%C3%93gicos%20en%20el%20Desarrollo%20de%20la%20Historia.pdf>> [2014/06/12an kontsultatua] 2. orria.

⁸ NIETZSCHE, F.W., 2003. *Sobre la utilidad y los perjuicios de la historia para la vida*. Editorial Bilioteca Nueva. Madril. 37. orria.

⁹ AGUIRRE, C.A., 2002. *Antimanual del mal historiador o cómo hacer una buena historia crítica*. Ediciones Desde Abajo. Madril. 11-15 orriak.

Ikerlari aunitzen ustez Historiaren funtzioa momentuko botereen legitimazio instrumentua izatea izan da. Hala ere, esaten ahal da, Historia, momentu oro, garai bakoitzeko gizarte eta politika garaikideak justifikatzeko tresna izan dela. Baita Aro Modernoan zein Garaikidean ere.

M. Kundera-k *El libro de la risa y el olvido* liburuan dioen bezala, Historia ez da iraganaren ezagutzean oinarritutako jakintza izan. Funtzio eta helburu horretatik landa, botereak etorkizuna eratu baino, iragana manipulatu izan du bere interesetara. Iraganeko zein oraingo errealitate sozialak ezagutu baino, Historia jakintza hutsaren zientzia bilakatu da era honetan.

Horren adibide garbia dugu idazkeraren presentzia dugun lehen lekukotasunen kasua. Idazkera sortu zenetik, Babiloniako eta Mesopotamiako lehen kroniketan historia ez zen errelatu gisa aurkezten, baizik eta gertaeren zerrendak ziren. Beren funtzioa boterea legitimatzea zen. *“Los inicios de la historia escrita están ligados a la justificación del estado monárquico por el doble camino de señalar su origen sagrado e identificarlo con el pasado de la comunidad”*¹⁰.

Historiografian hurrengo pausoa grekoek landutako Historia kontsideratzen da. Esaldi zaharrek dioten gisan Historia grekoekin sortzen dela erraten da. Grekoek idazteko forman eta historiaren funtzio sozialean aldaketa eragin zuela antzematen da. Ez dira gertakizunen zerrenda hutsak, ikerketa historikoa lantzen hasten da¹¹. Herodoto eta Tuzididesen izenak nabarmen litezke.

Herodotok (k.a. V. mendea) bere obraren hasieran honakoa idatzi zuen, bere obraren helburua adierazterako garaian: *“conservar el recuerdo de las hazañas de griegos y bárbaros, y especialmente, más que nada, decir la causa de que lucharan unos contra otros”*¹². Hau da, Historia iraganeko gertakizunak eta beren kausak, zergatiak, ulertzeko tresnatzat jotzen zuen. Herodotok ahozko testigantzen eta oroitzapen pertsonalen bidez landu zuen Historia. Fontanak ere Herodotoren Historiaren funtzioan iragana ez ahanzte delako nabarmentzen du: *“esta es la exposición de los resultados de las investigaciones de Heródoto de Halicarnaso para evitar que con el tiempo los actos humanos permanezcan en el olvido”*¹³.

Tuzididesek (k.a. V. mendea) historia politikoagoa landu zuen. Protagonisten ahozko lekukotasunen bidez eskuratzen zituen iturriak, eta deskripzioen bidez idazten zuen. Bere funtzioa esaten ahal da gerra justifikatzea eta greziarren nagusitasuna frogatzea izan ziren. Baina berak, bere idatzietan *“saber la verdad de las cosas pasadas”* jotzen zuen bere lanen funtziozat.

¹⁰ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. Crítica argitaletxea. Bartzelona. 20. orria.

¹¹ GUERRA, C.E., *Modelos epistemológicos y metodológicos en el desarrollo de la historia*. <<http://www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/sites/www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/files/site/MODELOS%20EPISTEMOL%C3%93GICOS%20Y%20METODOL%C3%93GICOS%20EN%20EL%20DESARROLLO%20DE%20LA%20HISTORIA.pdf>> [2014/06/12an kontsultatua] 3. orria.

¹² CARR, E.H., 1983. *¿Qué es la Historia?* 167. orria.

¹³ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 27. orria.

Interesgarria den antzinaroko beste historialaria Polibio (k.a. II. mendea) genuke. Grezieraz idatzi zuen Erromaren inguruan. historia unibertatsala landu nahi izan zuen erromatar munduan gertatutako gertakizun eta prozesuak nola, noiz eta zergatik azaltzen. Hori zen bere funtzioa¹⁴.

Mendebaldeko historiografian hurrengo erromatarra genuke. K.a. I. mendean sortu zela kontsideratzen da: Julio Zesar, Salustio, Tito Livio, Tazito...

Virgilio ere historiografia erromatarraren barnean genuke. Gizon honek historia etorkizuna iragartzeko tresna gisa aipatu zuen. Horrek Historiaren ikuspegi teleologikoa sortu zuelarik kristau eta juduek mantendu zutena Errenazimentu garaia arte. Horrek esan nahi zuen, historiak helmuga bat zuela, eta historiak hori aurreikusteko tresna gisa balio zuen historialari batzuen ustez.

Erromatar historiografiaren ondoren Erdi Aroko historiografia genuke. Batetik, historiografia musulmana dugu, berritzailea izan zena inguru hauetan. Mahomaren ekintza eta erranetan oinarritzen zen horien interpretazioak emanez.

Aldiz, Europa kristauan historia monjeen esku zegoen. Ez zituzten fenomeno eta gertakizunen azalpen eta kausak bilatzen, jainkotasunean oinarrituriko justifikazioak ematea zen beren funtzioa. Horrela, fantasia eta errealtatea nahasten zituen erlijio diskurtsoetan oinarritu zen historia: profezien interpretazioa eta eredu bizitza kristaua justifikatzea ere bazuten helburu bezala. Horretarako erabili zen historia nagusiki.

Hala ere, badaude VI. eta IX. mendeen artean germaniar herrien inguruko idatzi batzuk: *Historia de los francos*, Gregorio de Tours-ena, *Historia eclesiástica del pueblo de Inglaterra*, Bedarena, *Historia de los vándalos y de los suevos*, *Historia de los Lombardos* eta beste.

XII. eta XIII. mendeetan feudalismoa indartu zen Europan, eta horrek historiografian eragin zuen. Era honetan monasterioetan ez zen hainbeste idazten, eta zaldunen historiografia jorratzen hasi zen: gurutzadak, erregeak, zaldunak etab. izaten ziren historiaren funtsak. Kasu anitzetan fikzioa eta errealtatea nahasten ziren. Historia honen funtzioa ere orden feudalaren legitimazioa finkatzea zen antzinako historiek beren garaiko botere ordenekin egiten zuten bezalaxe¹⁵.

Errenazimentu garaian Italiako estatu-hirietako kasua dugu aipagarriena. Kronika eta kontaera erlijiosoek indarra galdu zuten Erreformaren eta Kontra-erreformaren arteko liskar garai hauetan. Metodologia zorrotzagoko historia lantzen hasi ziren, katolikoen artean bereziki jesuita eta beneditarrak. Literaturarekin loturiko historia lantzen hasi zen. Funtziari dagokionez, kristau bizitzaren eredu izatearen historia moralizatzaileak indarra galdu zuen eta funtzio politikoa nagusitzen hasi zen historian: *“El renacimiento de los estudios literarios estuvo asociado a las necesidades derivadas de ascenso de la autonomía de las ciudades, que exigía*

¹⁴ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 33. orria.

¹⁵ GUERRA, C.E., *Modelos epistemológicos y metodológicos en el desarrollo de la historia*.

<<http://www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/sites/www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/files/site/Modelos%20Epistemol%C3%93gicos%20y%20Metodol%C3%93gicos%20en%20el%20Desarrollo%20de%20la%20Historia.pdf>> [2014/06/12an kontsultatua] 4. orria.

*que se formaran cancilleres, jueces y funcionarios, a la vez que buscaba fundamento histórico en los viejos modelos de la polis griega y la república romana*¹⁶. Florentziako hiri estatuaren eta Maquiaveloren kasua da horren adibide garbia.

Errenazimentu garaian ere, gainerakoetan bezala, beren “orainean” zuten interesa. Beren egitura, instituzio, botere eta besteren legitimatzean: *“La historia política con base documental tiene sus inicios en historiadores renacentistas italianos: ellos necesitaban indagar los antecedentes en que se basaban los pequeños estados de la península, con el objeto de recomendar a los príncipes las medidas eficaces para consolidarse”*¹⁷.

Argiaren mendean, ilustrazioaren garaian, zientzia naturalak eta zientzia sozialak bereizten hasi ziren. Baina ilustratuek argudiatu zutenaren arabera zientzia naturalek bezalaxe fenomeno sozialek ere haien lege unibertsalak izan zitzaizketen. Ilustrazioak ordura arte historiak zuen funtzioa aldatu zuen. Hau da, historia ez zen hortik aitzina ulertuko historialarien artean agintarien instrumentu gisa. Historia zientifiko baten bilaketa hasi zen horrela, historia zientifiko bat egiteko asmoz.

Fontanak dioen bezala, ilustrazio garaian pentsamendu kritikoa garatu egin zen, eta onartutako eta ezarritako ezagutza unibertsalak kritikatzeko hasi ziren. Konbikzio hutsaren ordez arrazoia ageri zen, eta tradizioaren ordez jakintza berritzaileak¹⁸.

Ilustrazio garaian jende gehiagok idazten zuen. Testu laburragoak ziren, gutunen gisakoak, adibidez. Horrek, erregeek gorteetan historialariak beren zerbitzuan hartzea eragin zuen, kritikei aurre egiteko. Historia ofizialak kritika horiei aurre egiteko betebeharrak edota funtzioa hartu zuen garai hauetan. Luis XIV.ak, esaterako, 19 historialari zituen: Racine, Montesquieu, Voltaire, Diderot, Turgot eta beste. Frantziako Iraultza ondoren, berriz, historiak iraultzaren herentzia asimilatzeke funtzioa hartu zuen gizarte burges berria babestu edo legitimatuz.

Ingalaterran ere aldaketa prozesuak bizi izan ziren. Monarkia absolutua bertan behera utzi zen eta nekazal aristokrazia kapitalistak eta merkatal enpresariak gidatutako ordezkari sistema ezarri zen. Haien interes ekonomikoak zirela eta hedatze koloniala eta gerren finantzazioa onuragarriak zitzaizkien. Hortaz, historiaren funtzioa izan zen eredu sozial berri hori justifikatu eta legitimatzea: *“La nueva sociedad necesitaba un modelo explicativo que, por un lado, se expresara en términos del gobierno representativo nacido de la revolución de 1688, y que, por otro, asociase el interés con la conciencia e hiciera posible establecer la base de confianza – de trust- sin la cual era imposible el funcionamiento del mundo de los negocios”*¹⁹. John Locke izan zen gizarte berri honi oinarri historikoa eman zionetakoa bat.

XIX. mendean eman zen historiografiaren aldaketa nagusia, Historia zientifikoa sortu zen. Alemaniako Eskola Historikoa izan zen urratsa eman zuena. Eskola positibista, gero historizista ere deitua eratu zen horrela. Leopold von Ranke (XIX. mendea) jo zen bere sortzailetzat. Metodologia zehatz bat sortu zuen. Era honetan, historia ez zen testigantzetan oinarrituriko

¹⁶ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 66. orria.

¹⁷ PEREYRA, C.; VILLORO, L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 39. orria.

¹⁸ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 83. orria.

¹⁹ Ibidem. 93. orria.

kroniketan oinarritzen, baizik eta ikerketa historikoa izanen zuen oinarri hortik aitzina. Objektibotasuna, metodologia eta profesionaltasuna bilakatu ziren bere funtsak.

Historia ulertu eta lantzeko era testuinguru zehatz batean aldatu ziren. XVIII. mendetik aitzina nortasun nazionala sortzeko mugimenduak eratu ziren Alemanian. Iragan komuna bilatzen zen. Historia berri honek ere egitura politiko berri honen funtzio legitimatzailea egingen zuen. Historizismoa eta nazionalismoa uztartu egin ziren.

Historizismo hau Augusto Comtek gidaturiko korrante filosofiko batetik heldu zen. Positibismoa hartu zuen izena korrante honek, aurreko atalean azaldu dugun bezala. Gizartearen funtzionamendua ezagutzeko lege orokorrak aurkitu nahi zituzten positibista hauek.

Positibismo deituriko eskolari dagokionez, azaldu dugun bezala Historia zientifiko eta objektiboan sinesten zuten. Ondorioz, historiaren lana, historialarien lana datu horiek biltzea zen, datu objektibo eta errealak. Historialariek metodo zientifikoa aplikatu eta historiarako lege unibertsalak lortzean oinarritzen zen. Horretara mugatzen zuten Historiaren funtzioa, eta hortaz, erabilgarritasuna ere oso mugatuta zuten. Historia ezagutza hutsa baino ez zen. Comte eta Stuart Mill aipa litezke, besteak beste.

John Bagnell Bury izan zen beste positibista bat. Historiaren funtzioa ausazko gertaerak eta "derrigorrezko gertaerak" bereiztea zela aipatu zuen. Bere ustetan bazegoen guztizko ezagutza historiko bat ezagutzerik.

Hortik, historizismoa eratu zen. Historialari honek esandako batetik abiatuko gara: *"Se ha atribuido al historiador la misión de juzgar el pasado, de enseñar el mundo contemporáneo para servir al futuro: nuestro intento no se inscribe en tales elevadas misiones, sólo intenta mostrar lo que realmente fue"*. Objektibotasunaren bilaketa honi, ordea, iturri ofizialen erabilera gehitu behar zaio. Rankek defendatu zuen historiaren objektibotasunak izaera legitimatzailea hartu zuen Fontana eta beste batzuen ustez. Gainera, Rankek lantzen zuen historia guztiz politikoa zen: *"Sus libros hablan siempre de los estados y de las relaciones que se establecen entre ellos por medio de la diplomacia y la guerra"*²⁰. Cristina E. Guerrak ere adierazten du zein funtzio bete zuen korrante historizista honetan landutako Historiak: *"la Escuela Histórica Alemana va a centrarse en la investigación de los acontecimientos políticos, destacando los hechos y las acciones, sin intentar profundizar en el análisis de los mismos. La función legitimadora está vinculada con la constitución de los Estados (...), con la construcción de una identidad nacional"*²¹.

Garai berean ere Frantziako historiografiak norabide aldaketa jasan zuen. Objektibotasunaren bilaketa honek ere indarra hartu zuen lurralde honetan. Alemanian bezala gai politikoak, militarrik eta diplomatikoak landu ziren, eta oroz gain, historia nazionala.

²⁰ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 170. orria.

²¹ GUERRA, C.E., *Modelos epistemológicos y metodológicos en el desarrollo de la historia*.

<<http://www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/sites/www.didacticadelahistoria.unlu.edu.ar/files/site/Modelos%20Epistemol%C3%93gicos%20y%20Metodol%C3%93gicos%20en%20el%20desarrollo%20de%20la%20historia.pdf>> [2014/06/12an kontsultatua] 6. orria.

Bestalde, Alemanian bezalaxe, metodologia historiko honek iturri ofizialen erabilera soilik hartzen zuen aintzat era honetan Frantziako Iraultzan sorturiko nazio burges eta liberala legitimatuz.

Honen erakusgarri izaten ahal dira garai hauetan argitaratu ziren liburu ezberdinen izenburuak: Rankeren *Historia de los pueblos románicos y germánicos de 1494 a 1514*, Droysenen *Historia de la política prusiana*, Mommsenen *Historia romana*, Heinrich von Treitschkeren *Historia de Alemania ene I siglo XIX...* Ingalaterran Macaulay eta Buckle aipa litezke. Eta Espainian eta XIX. mende amaieran egon ziren saiakera batzuk.

Historiak iragana ulertzeko zuen balioa, ordea, garai berean ere ez zuten denek berdin ulertzen. Michelet aipa daiteke XIX. mendearen lehen erditik aitzina adibide gisa. Historia totalago bat landu nahi zuen, iraganean gertaturiko guztia ulertzeko, kausak eta prozesuak osotasunean ulertzeko: *“Elle (la France) avait des annales, et non point une histoire. Des hommes éminents l’avaient étudiée surtout au point de vue politique. Nul n’avait pénétré dans l’infini détail des développements divers de son activité (religieuse, économique, artistique, etc.). Nul ne l’avait encore embrassée du regard dans l’unité vivante des éléments naturels et géographiques qui l’ont constituée. Le premier je la vis comme une âme et une personne”*²².

Michelet-ek, historiaren funtzioa aipatzen duenean zeharka aipatzen du: *“de raconter seulement ou juger, mais d’évoquer, refaire, ressusciter les âges”*²³. Historiaren funtzioa eta erabilgarritasuna ez du gehiago aipatzen, historiografia landu zuen gehiago, metodologia. Baina zeharka, historiaren funtzioa zein den ere aipatzen du.

XIX. mendean ere bestelako korranteak eratu ziren ikuspegi historizista-positibistarekin bat ez zetozenak. Hortaz, historiografiaren eta, beraz, Historiaren funtzio eta erabilgarritasunaren inguruko beste ikuspegia Marxismoak adierazitakoa litzateke. Besteak beste, iragana ulertzeko eta gertakizun ezberdinen kausak eta ondorioak ulertzeko tresnatzat jo zuen Historia Marx-ek:

*“Pour penser l’histoire il faut au contraire penser qu’il y a du sens dans l’histoire, qu’elle a une intelligibilité, une cohérence qui lui est propre. C’est-à-dire que l’événement peut s’expliquer à partir d’autres événements, qu’il peut s’inscrire dans un réseau de causes et de conséquences qui l’enracine dans le passé et construit les fondations de l’avenir. Ni contingent, ni absolument nécessaire, le devenir est à comprendre, à penser, telle est la tâche de l’historien”*²⁴.

Autrement dit, penser l’histoire, c’est alors lui donner un sens dans sa globalité, en lui donnant à la fois une signification et une direction ; comprendre le pourquoi de l’événement ce n’est pas seulement comprendre les liens qui le relie à un autre événement, ou à un faisceau d’événements, c’est l’inscrire dans un processus global qui permet de comprendre sa signification non plus apparente mais réelle. C’est la finalité de l’histoire qui donne sens à

²² MICHELET, J., 1841. *Histoire de France*. Bibliolife argitaletxea. Paris. 1. orria.

²³ Ibidem. 11. orria.

²⁴ MARX PENSEUR DE L’HISTOIRE. Le cas du 18 Brumaire de Louis Bonaparte.

<<http://pierre.campion2.free.fr/mornejmarx.htm>> [2014/06/12an kontsultatua]

l'événement, l'événement n'a plus alors seulement un sens en lui-même, il prend sens par le projet global qui est à l'œuvre dans l'histoire, qui lui donne un pouvoir créateur. La temporalité historique devient le lieu de développement de toute réalité, en particulier de la réalité humaine. La dimension historique n'est plus seulement une dimension de l'homme parmi d'autres, elle est la forme nécessaire de toute pensée. L'homme se fait dans l'histoire, et l'histoire est la matrice dans laquelle se développe l'humanité.

Dans ces conditions, la lecture de l'histoire ne peut plus se faire seulement à partir de la lecture de l'événement. Penser l'histoire suppose au préalable que l'on détermine les principes qui la guident pour donner à partir de là tout son sens à l'événement ²⁵.

Marx-ek printzipio horiek, gertakizun ezberdinak zentzu batean lotzen zituen printzipio horiek bizitzako baldintza materialen arabera finkatzen zituen. Hau da, baldintza ekonomikoen arabera, nagusiki. Hau dela eta egotzi izan zaio Marx-i ikuspegi determinista izatea, eta horrek, historiako gertakizunei beren askatasun eta bakantasuna kentzen diola egotzi izan diote beste hainbat historialarik.

Gure gaiari dagokionez, helburua ez da materialismo historikoa azaltzea. Hortaz, Marx-ek historia lantzeko eran dituen ikuspegitik landa, Historiaren funtzioa, helburua eta erabilgarritasuna zein deritzon aztertzea litzateke.

Hortaz, Materialismo historikoa ezagutzuz gero, ondorioztatzen ahal dugu Marx-i historiak gertakizun ezberdinak zergatik gertatzen ziren ezagutzeko balio ziola. Hau da, iragana ezagutzeko eta iragana ulertzeko. Baina bereziki oraina ulertzeko ere. Iraganari baino garrantzia gehiago ematen dio momentuko uneari eta baita prozesuak azaltzeari ere, etorkizunean jarraituko duten prozesuak azaltzeari, hain zuzen ere.

Era berean, historian ematen diren eboluzio prozesuak ulertzeko eta testuinguruak, ekonomia ardatz gisa hartuta, gizartean eta indibiduoengan baldintzatzen duen jarrera azaltzea ere bada historiaren funtzio eta erabilgarritasuna, *Filosofiaren miseria* lanean azaltzen duen gisan.

Etorkizunean gertatuko diren aldaketak ere aurreikusi zituen Marxismoak. Horretarako ere balio zuen historiak Marx-en ustez. Materialismo historikoaren ikuspegi hauek izan ziren, lehen esan bezala deterministatzat jo zirenak eta oso kritikatuak izan zitzaizkionak.

Marxisten artean sailkatzen ahal den E. H. Carr-ek (1892-1982) Historia gertakizunen zergatiak ulertzeko tresna gisa aurkezten du. Hau da, iraganeko gertakizunak zergatik gertatu ziren azaltzeko. Lege unibertsalak guztiz baztertu zituen.

Carr-en ustez, Historiaren funtzioa iragana ezagutzeko da, eta horretarako garrantzitsua ez da zer gertatu zen azaltzea. Baizik eta zergatik. Zergati ezberdinak ezagutu eta haien eraginak aztertzea²⁶.

Carr-ek aipatzen duenez historialariak zeharka hautatzen ditu gertakizun historikoak zeintzuk izan diren, batzuk hautatuz eta besteak baztertuz. Era berean, interpretazioak

²⁵ MARX PENSEUR DE L'HISTOIRE. Le cas du 18 Brumaire de Louis Bonaparte.
<<http://pierre.campion2.free.fr/mornejmarx.htm>> [2014/06/12an kontsultatua]

²⁶ CARR, E.H., 1983. *¿Qué es la Historia?* 167-171. orriak.

burutzen ditu, eta kausak ezagutzen eta egituratzen ahalegindu. Hartara, iragana berreraiki eta ezagutu ahal izateko. Gertaerak, kausak etab. hautatzeko “*revelancia histórico*” delakoa hartzen du edo hartu beharko luke kontuan historialariak Carr-en ustez²⁷.

Era berean, Carr-ek historia defendatzen du etorkizuna eta eboluzio prozesuak ulertzeko tresna gisa.

Hala ere, Historiaren helburua adierazterako garaian honakoa dio: “*La historia es la larga lucha del hombre, mediante el ejercicio de su razón, por comprender el mundo que le rodea y actuar sobre él. (...) Pasado, presente y futuro están vinculados en la interminable cadena de la historia*”²⁸. Hala ere, historiari ere erabilgarritasun ezberdinak aipatzen dizkio. Masak manipulatzeko tresna gisa balio duela ere aipatzen du, besteak beste.

Marxismoaren ikuspegi historikoa izan arren, indarra zuena ikuspegi historizista/positibista izan zen XIX. mendean zehar. Hala ere, ikuspegi hau baztertzen zuten joerak ere ugalduz joan ziren. “*Desde comienzos del siglo XIX empezaba a resultar visible en el terreno de la Historia el agotamiento de los viejos métodos (...) con sus pretensiones de objetividad científica, que enmascaraban el hecho de que su función real era la de servir, por un lado, para la educación de las clases dominantes y, por otro, para la producción de una visión de la historia nacional que se pudiera difundir al conjunto de la población a través de la escuela*”²⁹.

Historiografian, pixkanaka aldaketak eman ziren, bereziki XX. mendearen hasieran, eta gerren arteko garaian. Soziologiatik Durkheim eta Weber-en eragina aipa daiteke, baita antropologiaren aldetik ere. Pixkanaka mugimendu sozialenganako interesa piztu zen historian.

Durkheimen ekarpenen artean, historiaren funtzioaz zioena aipagarria da. Jakina, beste ikuspuntu batetik eginiko ekarpenak ditugu. Durkheim-ek historia ezinbesteko jotzen zuen gaur egungoa ulertu ahal izateko: “*Je crois que c'est seulement en étudiant le passé que nous pourrions arriver à anticiper l'avenir et à comprendre le présent, et que, par suite, une histoire de l'enseignement est la meilleure des écoles pédagogiques*”³⁰.

Fustel de Coulanges-ek eginiko ekarpen eta hausnarketa ere interesgarria suertatu daiteke: “*L'histoire n'étudie pas seulement les faits matériels et les institutions ; son véritable objet d'étude est l'âme humaine ; elle doit aspirer à connaître ce que cette âme a cru, a pensé, a senti aux différents âges de la vie du genre humain*”³¹. Historiaren ikergaia iraganeko gertakizunetan baino arimaren sinesmen, hausnarketa eta sentimenduei esleitzen die. Hau da, arima ezberdinek bizi izan dituzten sinesmen, hausnarketa eta sentimenduei. Hala ere, bere beste obretan, “*Recherches sur quelques problèmes de l'histoire*” delakoan, adibidez, gertakizun historikoen azterketa ere aipatzen du. Jakina, garrantzia eman zien iragana

²⁷ CARR, E.H., 1983. *¿Qué es la Historia?* 81-106. eta 182-186. orriak.

²⁸ Ibidem. 218. orria.

²⁹ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 181. orria.

³⁰ DURKHEIM, E., 1938. *L'évolution pédagogique en France*. Presses Universitaires de France. Paris. 16. orria.

³¹ FUSTEL DE COULANGES, N.D., 1864. *La cité Antique*. Champs classiques. Paris. 103. orria.

ezagutzeko gertakizun historikoei, baina arimen sinesmen, hausnarketa eta pentsamenduen garrantzia argi uzten du bere lanetan. Iraganeko atal hori, eta eboluzio hori ezagutzea ere historiaren esku dagoela adierazi zuen Fustel de Coulanges-ek.

Historiografiaren testuinguru honetan, historiaren estatusa eztabaidatzen ari zen honetan zientzia natural eta zientzia sozialen arteko eztabaida garatu zen. Zenbaitek historia ez zuten zientzia gisa ikusten. Horien artean Popper-ek, historiak ez baitzuen etorkizuna aurreikusten ahal. Gardiner eta Hempel-ek lege historiko orokorrik finka ezin ahal izatea jotzen zuten zientzia izatetik baztertzeko arrazoi.

Eztabaida hauek garrantzia dute historiaren funtzioak finkatzerako garaian. Azken batean, historia zer den, nola lantzen den, eta horren arabera zein funtzio eta zein erabilgarritasun izanen dituen ari baitziren eztabaidatzen.

Eztabaida hauek tartean, XX. mende hasieratik korrante historiografiko ezberdinak izan ziren indarrean: neo-marxistak, annales eskolaren belaunaldi ezberdinak, neopositibistak, neo-marxistak, eta historiaren krisian zehar eratu ziren korrante ezberdinak.

Lehenengoz Annales eskolako lehen belaunaldia aipatuko dugu. Historia ekonomiko eta soziala lantzen hasi ziren Marc Bloch eta Lucien Febvre. *Annales d'histoire économique et sociale* aldizkarian egin zuten presentzia. Historiaren protagonista gizakia zela nabarmendu zuten eta Historia problema gisa ulertzen zuen metodologia landu zuten. Febvre-k dioen bezala: "*Planter un problema es precisamente el comienzo y el fin de toda Historia. Sin problema no hay Historia*". Beren beste ezaugarri nagusiak diziplina aniztasuna eta iturri guztiak kritikoki interpretatzean oinarritu ziren. Annales-en Historia Sozialaren etapa izan zen hau.

Historiaren funtzioari dagokionez, Bloch-ek ez zuen iraganeko gertakizun eta egoerak aztertzeko tresna bezala ulertzen. Baizik eta oraina eta iragana bereiztu gabe, denboran zehar gizakiak eginiko obren ikertzea da historiaren lana bere aburuz. Historian iragana zein orainik berriena ere ikertu beharra azpimarratu zuen Bloch-ek, eta horretarako iritzi kritikoa garrantzia azpimarratzen zuen.

Era berean historiaren azalpenak unibertsalak direla azaltzen dute, historiak ez du afera zehatz soil bat aztertzeko balio, nazio bat esaterako. Henri Pirenne hasi zen ideia horiek zabaltzen eta M. Bloch eta F. Braudelek segitu zuten.

Bigarren belaunaldia, beraz, azken paragrafo horrekin lotuta, Historia Totala deitu zuten. Braudel eta E. Labrousse nabarmendu daitezke, modelo sozioekonomikoaren garrantzia berreskuratu zutelarik aurreko belaunalditik beste hainbat ideia berritzaileekin batera.

Braudelek bere idatzietan aitortzen duenez, Historiak ekarpen pertsonala egin zion bere bizian, eta horretarako historiak balio duela ohartaraztea izan da lan txiki honen ekarpen interesgarri bat: "*(...) nous fait comprendre la fonction salvatrice que l'histoire joue pour lui dans les différents moments de sa vie. D'abord sous forme presque inconsciente, ensuite comme vecteur d'un enracinement dans sa propre identité. Cette fonction salvatrice se*

*manifeste également pendant les études à la faculté (...) où la monotonie des cours répétitifs, reposant sur la mémoire et donc peu stimulants (...) fut cependant interrompue par certains éclairs de vivacité intellectuelle (...)*³².

Braudelek historiako pertsonaiak haien testuinguruan ulertzeko ahalegina egin zuen. Ez soilik pertsonaia historikoen egoera psikologiko eta norbanakoarenean gelditzeko. *“C’est la grande histoire qui, en façonnant le personnage, le rend compréhensible malgré ses mystères et ses intrigues insensées”*. Pertsonaia ezberdinak beren historiako lekuan ulertu eta aztertu nahi ditu, historia oso baten barnean³³.

Hirugarren belaunaldia, historiaren krisi garai batekin batera kokatzen da, 1970etik aitzina heldu dena. Bira Kultural edota Bira Linguistiko gisa ezagutu izan da ikerketa historikoan eman zen aldaketa hau. Modernitatearen ideiak alboratu eta posmodernismoaren ideiak nagusitu ziren: erlatibismo kulturala, indibidualismoa... Besteak beste arrazoi, identitate, objektibotasun eta gisako kontzeptuetan fedea galdu zen eszeptizismoa nagusituz³⁴.

Historiografiak bizi zuen egoera azaltzen du ongi Burkek: *“La nueva Historia por su parte ha acabado interesándose por casi cualquier actividad humana. (...) Aquello que antes se consideraba inmutable, se ve ahora como una construcción cultural sometida a variaciones en el tiempo y el espacio”*³⁵.

Izendapen ezberdinak jaso zituen historia lantzeko modu honek. Burguierek *“La fragmentación de la Historia”* izendatu zuen, Fontanak *“Migajas de la Historia”*, Burkek *“La nueva, nueva Historia”*... Kideen artean Burguiere, Revel, Le Roy Ladurie, Le Goff, White, Ginzburg eta beste aipa litezke.

Jacques Le Goff-ek historiaren balioa azpimarratu izan du bere lan ezberdinetan. Historiak indibidualki zein kolektiboki mundua eta guk bertan dugun papera ulertzeko balio duela erran izan du. Bere hitzetan historialariek bi ekarpen nagusi egiten ahal dituzte. Batetik, iraganeko ezagutzaren herentziak ezagutaraztea. Eta bestetik, historiaren ezagutzak eta izpiritu historikoak gure existentzia indibidualean eta kolektiboan aplikatzea. Mundua zein gu ere etengabeko aldaketan gaude, eta hori ulertzeko eta horretara egokitzeko balio du historiak bere hitzetan³⁶.

Historiak jasaten duen krisi hau historia globalizatzaile eta despertsionalizatua izateagatik eman zela argudiatu dute batzuek³⁷, baina korrante honek justu kontrako norabidea hartu zuen eta ikerketa objektuen zehaztasun faltagatik jaso zituen kritika gehienak. Ikuspegi berri honen baitan korrante historiko ezberdinak ziren: mikrohistoria, historia kulturala, historia

³² GEMELLI, G., 2005. *Fernand Braudel*. Universitat de Valencia. Servei de publications. Valentzia. 33. orria.

³³ Ibidem. 25. orria.

³⁴ EAGLETON, T., 1998. *Las ilusiones del posmodernismo*. Paidós argitaletxea. Buenos Aires. 11. orria.

³⁵ BURKE, P., 1991. *Formas de hacer historia*. Alianza argitaletxea. Madril. 14. orria.

³⁶ CLIONAUTA: BLOG DE HISTORIA. Entrevista a Jacques Le Goff: la periodización de la historia. <<http://clionauta.hypotheses.org/13676>> [2014/06/12an kontsultatua] J. Le Goff-i 2014/02/28an *Le Monde* egunkariak eginiko elkarrizketa.

³⁷ AROSTEGUI, J., 1995. *La investigación histórica: teoría y método*. Crítica argitaletxea. Bartzelona.

behetik, narratibismoa, emakumeen historia, gorputzaren historia, eguneroko bizimodua, heriotza, haurtzaroa, famili bizia, irakurketaren historia etab. Korrante bakoitzak era batean ulertu eta aztertzen zuen historia.

Mikrohistoria landu duten historialariek, C. Ginzburg tartean, helburua ikerketa lokalen bidez orokortasunak ulertzeko gai izatea dute.

Historia Kulturalak historia ulertzeko eta historiaren ekarpenak ulertzeko garaian ere biziki interesgarria antzematen dut. Robert Darnton korrante honen kideak honela dio: *“Cuando no podemos comprender un proverbio, un chiste, un rito o un poema, estamos detrás de la pista de algo importante. Al examinar un documento en sus partes más oscuras, podemos descubrir un extraño sistema de significados. Esta pista nos puede conducir a una visión del mundo extraña y maravillosa”*³⁸. Historiak kulturaren afera eta ezaugarriak ulertzeko duen gaitasun eta erabilgarritasuna azaltzen du. Bai errepresentazio ezberdinak, sinbolismoak, hausnarketa mentalak etab.

Hirugarren belaunaldi honetako beste korrante bat narratibismoa genuke. Historia diskurtso huts gisa ulertzen du, eta hortaz, bere funtzio bezala historiaren interpretazio posibleak sortzea da. Historia eta istorioa maila berean ezarri zituzten Hayden White eta bestek. Historialariak narratuko dituen elementuak aukeratzen ditu gertakizun batzuk hautatuz eta besteak baztertuz, batzuk azpimarratuz eta beste batzuk aipatu. Objektibotasuna eta egia historikoa ukatzen zuten narratibistek.

Behetik egindako historia korrantea, berriz, jende arruntak, biztanle xehek egiten dituzten ekintzak eta pentsatzeko moduak aztertzen ditu. Pentsamoldeen bilakaera eta pentsamoldeak berak testuinguruetan ulertzea du helburu eta funtzio historia honek. E. Thompson izan liteke historialari horien adibide.

Beste korrante bat Historia kuantitatiboarena edota Historia ekonomikoa deiturikoarena genuen. Fontanak dioen bezala, historia honen funtzioa gizateriaren garapen formula finkatzea zen³⁹. Walt Rostow izan daiteke egile aipagarrietako bat bere *“Las etapas del crecimiento económico”* lanarekin.

R. Fogel eta ekonometriaren ikuspegia, Serie Historia deiturikoa... Korrante ezberdinak sortu ziren honen barnean. Datu ekonomikoak testuinguru politiko eta kulturalarekin uztartu eta aztertzea zituzten helburu errealitatea ulertu ahal izateko.

Azkenik, historialari marxisten belaunaldi berriari heldu nahi nioke. Britainia Handian izan zuen indar gehien Eric Hobsbawn, Gordon Childe arkeologoa eta besteren eskutik.

Testuinguru honetan eman zen historiografiaren krisia deiturikoa, gaur egun arte aipatzen dena. Paradigma handien determinismo eta kutsu ekonomizistagatik eman zen batetik, eta

³⁸ DARNTON, R., 1998. *La gran matanza de gatos. Y otros episodio sen la historia de la cultura francesa*. Fondo de Cultura Económica. Buenos Aires. 13. orria.

³⁹ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 214. orria.

bestetik, posmodernismoaren ideien ondorioz ere⁴⁰. Hala ere, historiografian korrante berri zein zaharberrietuek aitzina jarraitu zuten.

Zaharberrietuen artean, batetik, korrante neopositibista dugu. Enpirismo logikoa bezala ere ezagutua zen, edota positibismo logikoa bezala ere. Historiaren krisi aurretik garatzen ari zen korrantea dugu. Izaera enpirikoa zuen oinarrietako bat; behaketa eta esperientzia. Analitikoa bestea: logikaz eta zehaztasunez aztertzeko gaitasuna. Neopositibista hauek, positibisten antzera, historia iragana ezagutzeko tresna izatera mugatzen zuten. Ulertzea ez zuten historiaren funtziozat jotzen. Moritz Schlick neopositibistak honakoa zioen: *“Calificar a un hecho de incierto será un sinsentido. Sólo nuestras afirmaciones, nuestro conocimiento, pueden ser inciertos. Por lo tanto, si logramos expresar los hechos brutos en enunciados protocolares, de una manera absolutamente pura, parece que éstos constituirían el punto de partida absolutamente fuera de duda de todo conocimiento”*.

Historiografiaren krisi honetan, historiaren funtzioaz idatzi zuten beste historialari eta pentsalari marxistak ere badira. Carlos Pereyra Boldrini dugu hau. Bi puntu ezberdin bereizten ditu bere lanetan. Batetik ikerketa historikoaren helburua, eta bestetik jakintza historikoaren helburua, nire ikerlanean interesatu zaidanez, eta historialari eta pentsalari askok jorratu ez duten gaia delarik: *“Unos son los criterios conforme a los cuales el saber histórico prueba su legitimidad teórica y otros, de naturaleza diferente, son los rasgos en cuya virtud este saber desempeña cierta función y resulta útil más allá del plano cognoscitivo”*⁴¹.

Cristina E. Guerra irakasleak Pereyrak eginiko azalpenak ongi azaltzen ditu ere. Historiak funtzio teoriko edo akademikoa betetzen du batetik. Hori iragana azaltzea litzateke, gizarteak iraganean bizi izan dituen mugimenduak. Baina bestetik, Historiak ere badu funtzio sozial bat: iragana antolatzea orainaren beharren arabera. *“El estudio del movimiento de la sociedad, más allá de la validez o legitimidad de los conocimientos que genera, acarrea consecuencias diversas para las confrontaciones y luchas del presente. No hay discurso histórico cuya eficacia sea puramente cognoscitiva; todo discurso histórico interviene en una determinada realidad social donde es más o menos útil para las distintas fuerzas en pugna”*⁴².

Era berean, Pereyrak azaltzen du Historiak oraingo egunetan dituen interesak direla eta, horrek zaildu egiten duela zientifikoki jorratu ahal izatea. Pereyrak klase dominatzaileen interesak aipatzen ditu, eta haien esku hartzeak historia lantzerako garaian.

Horren karira, D. Campionek argudiatzen du historialariek egin behar dutena ez dela historia distorsionatzen duen ikuspegi hegemonikoaren aurka egitea haien lanetatik. Baizik eta sorkuntza alternatiboak eratzea ezagutza eta errealitate totalaren berri emanez. Honakoa azalduz jarraitzen du: *“un enfoque comprensivo sobre el proceso histórico que permita un entendimiento de la totalidad, que apunte no sólo a explicar sino a transformar (sin pensar este vínculo con la acción transformadora como inmediato y lineal), problematizar con una mirada y*

⁴⁰ GUERRERO, P., 2011. *“Historia a Debate” y la historiografía del siglo XXI*. Universidad de Santiago de Compostela. Compostela. 319. orria.

⁴¹ PEREYRA, C.; VILLORO, L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 11. orria.

⁴² Ibidem. 13. orria.

*una concepción metodológica diferente, los aspectos que son tratados por los historiadores de algún modo aliados con el Estado y el poder social*⁴³.

Josep Fontana historialariak ere anitz idatzi du gai hauen inguruan. XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako historialari marxista dugu. Hori bere hausnarketetan guztiz antzematen da. Bere idatzietan garbi adierazten du, bere ustez, historia momentu bakoitzean agintean den ordenak bere burua legitimatzeko erabiltzen duela: *“Selecciona y ordena los hechos del pasado de forma que conduzcan en su secuencia hasta dar cuenta de la configuración del presente, casi siempre con el fin, consciente o no, de justificarla. (...) un partir del orden actual de las cosas para rastrear en el pasado sus orígenes, aislando la línea de evolución que conduce a las realidades actuales y transformándola en una manifestación del progreso, con fines legitimadores. (...) no se trata de una reelaboración individual de los datos del pasado (...), sino de algo que se realiza colectivamente y que tiene una función social*⁴⁴.

Besteak beste, bere idatzietan argudio ugari ematen ditu historiaren funtzio eta erabilgarritasun hau azaltzeko. Aipatzen dituenen artean, Fontanak adibide gisa azaltzen du arrazismoa sustatu zutenek zientziaren fruitu gisa erakutsi zutela beren teoria. Baina berez, ideia horiek ez ziren zientziatik sortu, legitimazio nahitik baizik.

Historialari honek azaltzen du gizakia animalia arrazionala baino, animalia arrazionatzailea dela. Hau da, bere ekintza eta erabakiak egin edota hartu ondoren, *a posteriori*, justifikatzen ditu arrazoi ezberdinekin, eta askotan asmatutako arrazoiekin⁴⁵.

Bestalde, historialari marxista bezala, historiaren funtzioaz ere badio historiaren papera iraganaren ezagutza berritua eratzea dela. Izan ere, horrela, gaur egungo onartutako oraina zein argudiotan eta nola legitimatzen den erakutsiko litzatekeelako. Horrek guk eskuratu nahi dugun etorkizunaren bidean garapen bide bat eraikitzeke balioko lukeelako. Historiak iraganaren ikuspegia aldatzeko eta etorkizunerako proiektu sozialak eratzeko balio duela adierazten du⁴⁶. Zalantzarik gabe, historiak botere asko duela entzunarazten du. Historiak orainari eta etorkizunari begira duen funtzioaz honakoa dio.

*“Si los historiadores franceses del primer tercio del siglo XX estudiaban la revolución de 1789 era porque querían contribuir a asentar los fundamentos de las libertades democráticas contra las fuerzas que las amenazaban. Y si los historiadores marxistas británicos de después de la Segunda Guerra Mundial se dedicaron a analizar en profundidad la revolución industrial y sus antecedentes, era para entender mejor los fundamentos del capitalismo con el fin de aliviar los males que causaba*⁴⁷.

⁴³ CAMPIONE, D., 2002. *Argentina. La escritura de su historia*. Centro Cultural de la Cooperación. Buenos Aires. 6. orria.

⁴⁴ Fontana, J., 1982. *Historia. Análisis del pasado y proyecto social*. Critica argitaletxea. Bartzelona. 9. orria.

⁴⁵ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 363-364. orriak.

⁴⁶ Ibidem. 261. orria.

⁴⁷ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 353. orria.

Erabilgarritasun eta funtzioez diharduela, historiaren funtzio eta balio bezala iritzi kritikoa eratzea eta mundua ulertzea direla ere aipatzen ditu bere idatzietan⁴⁸. Baina funtsean historia etorkizuna eraikitzeko tresna bezala aurkezten du.

Korronteei eta historiografiari jarraiki, erran bezala, gaur egun, historiografia, historia krisian dagoela kontsideratzen da oraindik. Eta mekanismo eta korronte berriak eratu dira, oro har. "Historia a Debate" bezalako historialarien instrumentu eta elkarguneak eratu dira. Korronte berri hauek posmodernismoaren eta ikuspegi positibistak alboratu nahi dituzte eta XX. mendeko paradigma handiak berritu eta garai berrietara egokitu: historia globala, diziplina aniztasuna, azalpen modeloak, etab. Baina beraien ezaugarri nagusia orainaldiarekin duten lotura da. Hau da, historialariek eta historiak funtzio eta ardura soziala dutela uste dute⁴⁹: *"ante la situación de crisis de la historia, se configura como un grupo de historiadores (...) para resolver un viejo asunto del que depende el estado de salud de la historia: el de la función social de los historiadores y de la historia como ciencia del conocimiento"*⁵⁰. Honela erakusten dute historiaren funtzio eta erabilgarritasun gisa historiak haien iritziz duen baliagarritasuna. Historia a Debate-z gain, badira hainbat eta hainbat historialari ideia hauekin bat egiten dutenak, Roger Chartier-en saiakerak adibidez⁵¹.

Gaur egun, paradigma historiografiko sendorik ezean, Historia a Debate-n kontsentsu paradigmatico, epistemologiko eta teoriko gutxienekoak finkatu dira. Hala ere, haien burua talde guztiz heterogeneo eta malgu gisa ulertzen dute eta hala izan nahi dute. Hortaz, egun, historiaren funtzioaren inguruan ere eztabaida eta ideia aniztasun handia dago historialarien artean. Baina honako planteamendua da nagusi: *"no debemos aislarnos en el pasado histórico objeto de nuestro estudio, sino que a través de nuestros conocimientos es necesario incidir también en la sociedad actual, contribuir al cambio y al progreso"*⁵².

3. METODOLOGIA:

Gai honen inguruan historialari ezberdinen ideia eta hausnarketak azaldu ondoren, lehenik eta behin, Berako Toki Ona institutuan egindako 2. *Practicum*-ean zehar informazioa eskuratzeko erabili nituen metodo ezberdinak azalduko ditut. Hau da, ikasleengandik gai ezberdinen inguruan informazioa nola eskuratu nuen azalduko dut.

Ondoren, gai bakoitzaren inguruan ikasleek eztabaidagai ezberdinen inguruan emandako erantzun eta hausnarketak aurkeztuko ditut. Aurrena, ikasleek historia bezala zer ulertzen duten azalduko dut. Ondoren, ikasleek historiari zein funtzio, erabilpen eta helburu

⁴⁸ Fontana, J., 1982. Historia. *Análisis del pasado y proyecto social*. 248. orria.

⁴⁹ GUERRERO, P., 2011. "Historia a Debate" y la historiografía del siglo XXI. 317. orria.

⁵⁰ Ibidem. 323. orria.

⁵¹ CHARTIER, R., 2007. *La historia o la lectura del tiempo*. Gedisa argitaletxea. Bartzelona.

⁵² GUERRERO, P., 2011. "Historia a Debate" y la historiografía del siglo XXI. 332. orria.

antzematen dizkioten adieraziko dut. Eta zeharka historia interesgarri antzematen ote duten eta gaur egunerako, beren eguneroko bizitzarako etab. erabilgarria ote zaien.

Azkenik, ikerlanak gai honen inguruan eragin dizkidan hausnarketa eta ondorioak azaltzen ditut. Honela, azterketa eta hausnarketa bidez, historiaren funtzio eta baliagarritasunaz institutuetao ikasleek duten iritziaren analisia burutu nahi izan dut.

4. INFORMAZIO ITURRIAK:

Ikasleekin loturiko datuak eskuratzeko garaian hiru informazio iturri ezberdin erabili ditut. Adin ezberdineko ikasleekin aritu ostean, DBH 4. mailako eta Batxilergo 1. eta 2. mailako ikasleekin errotzea erabaki dut. Izan ere, adinean behera egin ahala erantzunak ez ziren garatuegiak, eta, gainera, saio praktikoetan hiru kurtso hauetako ikasleekin lan egiteko aukera baino ez dut izan. Hortaz, eskuratu nituen DBH 2. mailako erantzunak aztertu arren, lanerako ez ditut gehiegi baliatu, eta lanarekin aitzina egin ahala hiru kurtso horietako ikasleekin errotzea hautatu nuen.

Lana euskaraz burutu dut, eta ikasleekin ere euskaraz lan egin dut. Nagusiki D ereduko ikasleak izan ditut, baita B ereduko batzuk ere. Batxilergo 1. eta 2. mailako zein DBH 4. mailako bina klase izan ditut. Orotan 6, beraz.

Lana burutzeko aukera Berako Toki Ona institutuan izan nuen. Garrantzitsua iruditzen zait institutu honen testuingurua labur azaltzea, balitekeelako testuinguruaren arabera emaitza batzuk edota azalpen batzuk ezberdinak izatea eta.

Institutu honetan Bortzirietako ikasleak ditugu: Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantzakoak. Institutu publikoa Beran kokatzen da DBH, Batxilergoa eta Lanbide-Heziketako Erdi zein Goi mailako hainbat ziklo eskaintzen direlarik. 397 ikaslek osatzen dute institutua eta 57 irakaslek. Hala ere, badira langile gehiago ere administrazioan zein mantenuan aritzen direnak.

Toki Ona institutuko ikasleak eskola ezberdinetatik heldu dira. Beran hiru eskola badira: Labiaga Ikastola (DBH 2. mailara arteko hezkuntza duena, D ereduan), Rikardo Baroja eskola publikoa (D eredukoa), eta Jesusen Bihotza eskola pribatua (A eta B eredueta). Lesakan bi eskola badira: Irain eskola publikoa D ereduan eta Tantirumairu ikastola. Etxalarren, Igantzian eta Arantzaren eskola publikoak dira, eta hiruetan D ereduan irakasten da. Arantzaren kasuan, lehen eta bigarren DBH bertan egiten dituzte Berara dagoen distantzia dela eta.

Bera da inguruko herri handiena eta ondoren Lesaka. Bi herri hauetakoak dira Toki Onako ikasle gehienak. Bestalde, nagusiki ikasle gehienek D ereduan ikasten dute. A eta B ereduak ere

badira, baina nabarmen ikasle gutxiagorekin. B ereduan kurtso bakoitzean 15na ikasle dira gutxi gora behera. A ereduan, aldiz, arrunt gutxiago, 15 bat zentro osoan. Normalki etorkinen seme-alabak izaten dira eredu honetan ikasten, usu Hego Amerikako etorkinen seme-alabak.

Testuinguru kultural eta linguistikoa aztertuta Nafarroako zonalde euskaldunean gaudela aipatu beharko genuke. Horren erakusgarri da ere Institutuan D eredu nabarmen dela.

Ekonomiari dagokionez, inguru hauetan industria nagusitzen da, bereziki Bera eta Lesakan. Aipatze aldera, Lesakako "Arcelor Mital" enpresa izaten ahal da aipagarria, garai bateko "Laminaciones de Lesaka" bezala ezagutua. Bortzirietako industria 60ko hamarkadatik aitzina biziki lotua izan zen industria eta enpresa honi. Era berean, fabrika honen irekitzeak etorkinak erakarri zituen, gaur egun herrietan guttiz murgilduta daudenak. Industriarekin laborantzaren eta abeltzaintzaren garrantziak behera egin zuen.

Bestalde, Toki Onan eskaintzen diren Erdi zein Goi mailako zikloak bertako industriarekin aski lotuta daudela aipatzen ahal da. Gainera, esan beharra da ziklo hauetako ikasle gehienak gizonezkoak direla. Emakumezkoen presentzia aski urria da. Ikasketa uzte goiztiarra eta ikasketa porroten kasuan ere anitzez gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino.

Ikasleek egindako ekarpenak zein galdetegiko erantzunak hurrengo ataletan adieraziko ditut. Honako hauek dira, beraz, erabilitako informazio iturriak:

a) Klase praktikoak:

Practicum-ean zehar irakasleek gure esku utzi zituzten klase orduetan, nagusiki, hurrengo puntuetan landuko ditugun arloak jorratu nituen. Izan ere, eskaintako bi klase Master Amaierako Lanarekin lotura zuten saioak izateko aukera eman ziguten irakasleek. Bata 1. Batxilergoan eta bestea 2. Batxilergoan.

Oro har, helburua saio dinamiko eta parte hartzaileak izatea zen, ikasleek ere parte har zezaten, puntu ezberdinen inguruan haien iritzia eman zezaten eta haien ikuspegiak azter nitzan Master Amaierako Lan honetarako profitatuz.

Klaseetako aurkezpena⁵³ irudi grafikoetan oinarritu zen. Gainera, eztabaidagaiak aurkezteaz gain ikasleei galderak pausatzen nizkien, edota haiek nahi zutenean saioa eteten zuten haien adierazpenak egiteko edo galderaren bat egiteko ere.

Saioa eskaintako klaseetan, Batxilergo 1.E eta 2.E geletan klaseak dinamikoak eta parte hartzaileak izatea lortu nuen, batez ere Batxilergo bigarren mailan. Bi klaseak oso aberasgarriak izan zitzaizkidan Master Amaierako Lan honi begira, dinamikoak eta parte hartzaileak izan ziren eta ikasleek ideia biziki erakargarriak plazaratu zituzten. Honela, klaseak hausnartzaileak eta pentsatzekoak izan ziren, ikasleek gaiari loturiko hausnarketak egin zituzten eta galdetegietan izandako erantzunetan ere antzeman ahal izan da hori, ondoren

⁵³ 1. eranskina: Klaseko aurkezpena.

aztertuko dugunez. Klase amaieran ikasleek eginiko ekarpenen eta erantzunen oharrak hartu nituen MAL honi begira.

Bi klase hauetan gai ezberdinak jorratu genituen baina ildo eta gai nagusi baten inguruan: Zertarako balio digu Historiak? Gutxi gora behera Master Amaierako Lan hau bezala egituratuta zegoen, gidan eta saioetako aurkezpenean ikusten ahal denez. Klase hauetan hausnartu ahal izan genituen gaiak honakoak izan ziren, eta orden honetan landu genituen:

1.- Zer da Historia:

Lehenik eta behin, nire ikerketa burutu ahal izateko ikasleek historia nola ulertzen zuten aztertu nahi nuen. Historia zer den era irekian landu genuen, ikasleek banaka ekarpenak egiten zituztelarik. Nik ideia horiek apuntatu eta kudeatu egiten nituen. Zuzenketarik ez nuen burutzen ikasleak ez tratatze aldera, harik eta ez bazen erantzun biziki okerrik. Tarteka, nik ere ideia berriak proposatzen nituen ea haiei egokiak iruditzen ote zitzaizkien galdetuz. Ikasleei banatu nien galdetegian ere, historia zer den gaiarekin loturiko galdera zehatza erantzun zuten.

2.- Historia, aukeratutako gertakizunak:

Gai honetan Historian gertakizun batzuk aukeratu eta oroitu egiten direla eta beste batzuk baztertu egiten direneko eztabaidaz jardun nuen. Zesarrek Rubikon ibaia zeharkatutakoa zergatik da historikoa, eta ez laborariak egunerokoan ibai berbera zeharkatzen duten gertakizuna? Nahiz eta gai hau ere landu, gerora, MAL-a aitzinatu ahala baztertu egin nuen.

3.- Zertarako balio du Historiak:

Nire lanaren gai zentrala izan da galdera hau. Lehenengo puntuarekin bezala jokatu nuen. Interesatzen zitzaidana ikasleek egiten zuten ekarpenak ziren, eta baita hausnarketa bultzatzea ere. Bestalde, galdetegian ere galdetu nien Historiaren baliagarritasun eta funtzioaz.

4.- Inperialismoa:

Bi klase hauetan, jarraian, inperialismoaren gaia landu genuen. Iraganetik heldu den prozesu etengabe hauek baliagarria iruditu zitzaidan. Izan ere, Ameriketako konkista, Afrikak eta Asiak pairatutako inperialismoak eta gaur egungo neoinperialismoak landu bainitzakeen. Hau da, iraganeko gertaerak, gaur egungoak, eta etorkizunari begira ere hausnartzeko bidea ematen duen gaia da. Horregatik interesgarria iruditu zitzaidan, eta ikasleekin nik landu nahi

nituen hausnarketak burutzeko aproposa. Hau da, historiak zertarako balio du? Gaur egunean balio digu? Inperialismoaren gaiak hori hausnarraraziko ziela pentsatu nuen.

Klasean zehar, inperialismoaren gaia lantzeko, lehenik eta behin, irudien bidez egungo Frantziako selekzioaren kideak diren jokalaria aurkeztu nituen. Batetik, beren jaioterria, biziterria eta guraso edota arbasoen bilakaera azaldu nuen. Ikasleek jakin ezean lurralde, kolonia edo hiri bakoitza nongoa zen ere azaldu nuen. Honekin ohartarazi nahi nituen ikasleak Historiak ere zama eta eragina duela gutxien espero dugun eguneroko gai batean, futbolearen adibidez.

Segidan, galdera pausatuz, zein Historiako fenomenorekin lotzen ote zuten galdetu nuen, eta erantzuten jakin ezean inperialismoaren gaia zela ohartarazten nituen. Segidan, ondoren burutu nahi nituen hausnarketak eta haien erantzunak ukan ahal izateko mapa ezberdinen bidez Inperialismoa zer izan zen azaltzen nuen laburki.

Ondoren, Frantziako selekzioko jokalaria baten kasua hartzen nuen, adibide gisa landu genezan. Angolan sortutako jokalaria honen kasua probestuz, Afrikako kolonia ezberdinen egoeratik Angolako hautatu nuen zehazki lantzeko. Hortik, kolonien mapa eta tribu zein hizkuntzen mapak nahasiz eta konparatuz ikasleen hausnarketak eragin nahi izan nituen.

Jokalaria zehatz honen bizia oso baldintzatuta zegoen Angolak bizi izandako historiarekin: Bere gurasoak angolarrak dira, eta, bertako gerrak zirela eta, Kongoko Errepublika Demokratikora ihes egin zuten. Gainera, jokariaren ama hizkuntza lingala deiturikoa da. Kongotik bere gurasoek Frantziara jo zuten, eta Tolosan sortu zen Matuidi jokalaria. Hortaz, bai Angolako lurralde ezberdinetako historiak, zein inperialismoak, zein kulturak (lingala kulturak) eragin zuzena dute jokalaria honengan. Hortaz, adibide garbia eta esanguratsua litzateke bere bizia.

Honekin, erakutsi eta hausnarrarazi nahi nuen, neurri batean edo bestean, Historiak gure indibiduen biziak ere baldintzatzen dituela, eta baita kolektiboenak ere gaur egunean, orainean.

5.- Historiaren eragina gaur egungo zenbait egoera eta adibidetan:

Ikasleek historiak gure bizietan izan dezakeen eragina, funtzioa eta baliagarritasuna hausnar zezaten gaur egunean ere historiak eragin zuzena izan duen beste ariketa edo hausnarketa bat proposatu nien inperialismoaren gaiarekin uztartuta dagoena. Londreseko 2. Batxilergoko eta Pariseko adin bereko gela banaren ikasleen argazkia haien gelarekin alderatzean zetzan ariketak. Etnia aniztasuna zela eta diferentzia argia zen⁵⁴. Gela horietako

⁵⁴ Aipatu behar da jarduera hauek landu zituzten ikasle gehienak D eredukoak zirela, eta ikasle batzuk B eredukoak. Herri hauetako institutueta eta eredu hauetan gertatu ohi denez, ia ez zegoen etnia aniztasunik.

argazkian historiako prozesu ezberdinek izan duten eragina aztertzea zen helburua, eta baita haien gelakoaz hausnartzea ere.

Ondoren, helburua haiek beste adibide batzuk proposatzea zen, eta bururatu ezean adibide batzuk proposatzen nituen irudien bidez.

Batzuk gatazka politikoak ziren: Israel-Palestina, Maroko eta Mendebaldeko Sahara... Beste batzuk ekonomikoak, hala nola globalizazioa. Baita globalizazio kulturala eta etniantzatasuna, kulturantzatasuna etab. Edota neokolonialismoa ere, nahiz eta kutsu politiko zein ekonomikoa duen bere baitan. Hirugarren eta Lehen munduaren sorrera, eurozentrismoaren ikuspegia, sinesmen eta erlijioen bilakaera eta gure artean duen presentzia, edertasun fisikoaren irudiaren bilakaera, eta besteren bat.

6.- Historiaren eragina norbanakoaren bizi pertsonalean:

Historiak kolektiboan duen eragina aztertuta, pertsonengan eragina duela ere hausnarrarazi nahi nuen. Matuidi Frantziako futbol selekzioeko jokalariaren kasuan bezalaxe, hein handiagoan edo txikiagoan denoi eragiten digula hausnarrarazi nahi nuen. Horretarako zuhaitz kronologikoen bi ariketa⁵⁵ proposatu nituen.

Zuhaitz kronologikoen ariketa hauetan, batetik, ikasle bakoitzak erlijioari dagokionez bere familiaren azken hiru belaunaldiak zein iritzi zuten adierazi behar zuten: kristau sinestunak, ez sinestunak edota beste erlijio batetakoak ote ziren. Eta, bestetik, beste zuhaitz kronologiko batean senide horien lanbidea eta jatorria adierazi behar zuten. Horrekin ohartarazi nahi nituen historiak ere horrelako txikitasunetan ere eragina duela gure inguru hurbilenean.

Lehenik, nire familiako kasua aurkeztu nuen: aiton amonetan 4tik 3 sinestunak; gurasoetan bat sinestun eta bestea erdizka. Bi semeak (haietako bat ni) ez sinestunak. Belaunaldiz belaunaldi afera honek duen eboluzioa erakusten du. Nire familiaren kasuan erraten ahal da, oro har, nahiko lotuta dagoela gure inguruetako gizartean, eta oro har, mendebaldeko gizartean gertatu den gai honen inguruko eboluzioarekin. Gizartea ez da duela 50-80 urte bezain sinestuna. Ondoren galderak pausatzen nizkien, nire familiako hiru belaunaldietan ikus zitekeen prozesuaz, historiaren eraginaz etab.

Segidan, boluntarioek haien familiako egoera aipatu zuten. Honela, historiak guregan duen eraginaz hausnartu genuen galderen bidez eta parte hartzeen bidez. Gizartearen eragina, familiarena etab. aipatu genituen. Azken batean, historiak gizartean, kolektiboan, zein indibiduoetan eragina duela hausnartzea zen helburua. Ondoren, berdina burutu genuen herriak eta lanbideak idatziz bete behar zen zuhaitz kronologikoarekin.

Zuhaitz kronologikoen jarduera honekin erakutsi, edo hausnarrarazi, nahi nuen Historiak gure inguru hurbilean zein guran eragin zuzena duela. Hau da, sinesmenen inguruan

⁵⁵ 2. eranskina: Bi zuhaitz kronologikoen adibidea.

belaunaldiz belaunaldi bai gizartearen arabera zein familiaren arabera, eta, horrez gain, gure nortasun eta izaera pertsonalaren arabera erlijioaren inguruan, sinestunak eta praktikanteak izanen gara edota ez.

Ildo horretan, zuhaitz kronologikoen ariketak ere historia etengabeko prozesu bat dela ulertzeko balio izan zuen. Etengabeko aldaketa eta eraldaketek osatzen duten prozesu bat, gaur egun arte heldu dena, eta etorkizunean segituko duena. Zuhaitz kronologiko horiek familien barnean gai ezberdinen inguruko prozesuak ikusten ditugu (landu ditugun kasuetan, esan bezala sinesmenena, biziterria eta lanbidearena), eta jaso ditzakegun eraginak ere isla ditzakete.

7.- Azken hausnarketak. Zertarako balio digu Historiak.

Azkenik, berriz ere historiak zertarako balio ote zuen galdetu eta mintzatzea nuen helburu. Hasieran baino ideia gehiago ote zituzten ikuste aldera. Ikasleetako batzuek beren ideiei eta hausnarketen berri eman zuten.

b) Galdetegia⁵⁶:

Galdeketa bera adin ezberdinetako ikasleek erantzun dute. DBH 2. mailako, DBH 4. mailako, Batxilergo 1. mailako eta Batxilergo 2. mailako ikasleek, hain zuzen ere. Adinaren arabera erantzunak oso ezberdinak dira, bereziki DBH 2.mailakoak. Esan dudanez, azken hauek lanerako ez ditut erabili.

Era berean, galdetegi bera erantzun dute saio praktikoa jaso duten gelek, zein saio praktikoa jaso ez zuten gela batzuek ere.

Hortaz, galdetegiari emaniko erantzunak neurri batean ezberdinak izan ziren saio praktikoa eskaini nien ikasleen eta saio praktikorik eskaini ez nien ikasleen artean. Hala ere, erantzunak oso urrunak ez direla ere ikusten ahal da. Osatuagoak dira erantzunak, baina ez biziki ezberdinak ere.

Galdetegiaren egiturari dagokionez, bi zatitan banatuta antolatu nuen. Lehen zatian, lau galdera teoriko ziren. Bertan ikasleek historia bezala zer ulertzen zuten; historiak zein erabilgarritasun duen; norberarengan gizarteko arlo ezberdinek zein eragin duten; eta historiak norberaren ingurua zenbat baldintzatu ote zuen galdetu nien, eranskinetan gehitu dudak galdetegian ikus daitekeenez.

Lehen bi galdera hauekin honekin adin ezberdineko ikasleek historiari antzematen dioten baliagarritasuna eta erabilgarritasuna aztertu nahi nituen batetik. Hirugarren galderaren bidez,

⁵⁶ 3. eranskina: Galdetegi baten adibidea.

berriz, eragile ezberdinek norbanakoan duen zama nola aztertzen zuten ikusi nahi nuen hirugarren galderaren bidez. Ez nuen oso argi baliagarria izango zen, baina horren bidez, Historiako eragile ezberdinek garai ezberdinetan izan dituzten eragin ezberdinak aztertu nahi nituzke, eta gaur egun haiek nola ikusten duten eragile horiek beraiengan duten eragina. Azkenean, galdera hau ez zait erabilgarriegia suertatu lan honetarako.

Laugarren galderarekin, aldiz, Historiak gaur egun eta haiengan eraginik ba ote duen galdetzen nien zuzenki.

Bigarren zatian, berriz, bi zuhaitz kronologiko huts zituzten ikasleek bete zituzten. Zuhaitz kronologiko hauek eskaini nituen klase praktikoetan erabilitako berak dira.

Hortaz, bi zuhaitz kronologiko hauek ere hiru belaunalditakoak dira. Lehenean, aitona-amonak, gurasoak eta seme-alabek (anai-arrebek eta erantzuten duen ikasleak) Jainkoan sinestunak ote ziren, eta praktikanteak ote ziren ezarri behar zuten. Bigarren zuhaitz kronologikoan, berriz, familiako senide bakoitza nongoa eta zein ogibide izan zuen edota duen erantzun behar zuten.

Bigarren zatiarekin, berriz, zuhaitz kronologikoekin, hausnarrarazi eta erakutsi nahi nien ikasleei bai gizarteak zein Historiak gure familietan eta gure inguru hurbilean zein gure buruarengan ere eragin zuzena duela. Horretarako, erlijioaren inguruan hiru belaunaldietan familia bakoitzaren barnean eman den eboluzioa azaldu nahi nuen.

Sorterri edota biziterria eta lanbidea galdetuz ere berdina erakutsi nahi nuen. Normalki inguruko herrietako jendea izaten da, edo emigrazio ezberdinak erakusten ditu ere. Lurralde ez hain industrializatuetatik lan bila etorritako etorkinak (aitona-amonen edota gurasoen garaietan) etab. Lanbideetan ere ofizioen errepikatzea oso usu gertatzen da familien barnean.

Jakina, klasea eskaintzeko aukera izan genuen geletan profitagarriagoa izan zen ariketa ozenean hausnartzeko aukera izan baikenuen denok elkarrekin.

c) Ikasle zenbaiten erantzunak:

Azkenik, lana aitzinatu ahala, MAL-a burutu eta osatu ahal izateko ikasle zenbaitekin mintzatu ahal izan dut lanaren ildoari jarraiki eta ikasle ezberdinen iritziak entzun ahalez. Saiorik jaso ez zuten ikasleen ikuspegia osatzeko zenbait galdera burutu nizkien ausaz aukeratutako DBH 4. mailako 6 ikasleri.

DBH 4. mailako ikasle hauekin elkarrizketa gidatu bat⁵⁷ burutu nuen, 10 minutu ikasle bakoitzarekin. Ikasle hauen elkarrizketen transkripzioak burutu nituen ondoren ikerketa honetan landu ahal izateko. Honako galderei erantzun zieten ikasle hauek:

⁵⁷ 4. eranskina: Elkarrizketa gidatu baten transkripzioa.

- Aipatu historiako 6 pertsonaia.
- Zertarako balio du Historiak?
- Garrantzitsua iruditzen zaizu Historia?
- Zergatik uste duzu izan daitekeela garrantzitsua Historia? (*Aurreko galdera "bai" erantzunez gero*).
- Historiak zure bizian eragin du, edota eguneroko bizian eragiten du?
- Aipatu dezakezu zure inguruan eragina duen prozesu historikoren bat?
- Historia, ez ikasgaia baizik eta gai historikoak edota historia bera, interesgarria egiten zaizu? Gustuko duzu?
- Institutuko Historia ikasgaia gustuko duzu? Zer duzu gustuko eta zer ez ikasgai honetan?
- Zer duzu gustuko ikasgai honetan eta zer ez?

5. IKASLEEN ERANTZUNEN AZTERKETA:

5.1. ZER DA HISTORIA:

Atal honi dagokionez, erran bezala, ez nuke sakontasun handiegiz landu nahi, ez baita ikerlanaren ildo nagusia. Hala ere, laburki bada ere, landu beharreko puntua iruditzen zait. Izan ere, ikasleek Historiari ikusten dioten erabilgarritasuna hertsiki lotuta legoke Historia gisa zer ulertzen duten jakitearekin.

a) Klaserik eman ez nien ikasleen ikuspegia:

Galdetegiak aztertu eta *Practicum*-ean egindako saioen ondoren, argi ikusten ahal da, batetik, oro har, ikasleek historia iraganarekin lotzen dutela. Historia iraganeko gertakizunen multzo gisa ulertzen dute, eta oro har, kutsu politikotik ikusten dutela ondorioztatzen ahal da. Hala ere, gizarte arloa ere usutan aipatzen dute: kultura, bizimodua, familia... Indibidualki galdetu nituen kasle gehienek ere ikuspegi berdina aipatu dute. Iraganaren ezagutza eta jakintza bezala aipatzen zuten Historia.

b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia:

Era berean, neurri batean, gai honen inguruan klasea eman nuen geletako emaitzak ezberdinak dira klasea jaso ez zuten ikasleekin alderatuz. Izan ere, 1. Batxilergo E gelako eta 2. Batxilergo E-ko ikasleen erantzunetan eskainitako saioekin loturiko ikuspegi bat antzematen ahal da. Eskainitako klaseen ondoren, bai Batxillerreko 1. Eko zein 2. Eko ikasleek iraganaz, gizarteaz, politikaz gain beste kutsu bateko aferak ere aipatzen dituzte. Esaterako gaur egungo egoerak ulertu ahal izateko tresna gisa azaltzen dute historia, zergatiak ulertzeko tresna gisa baina era berean, iragana eta gertakizunak ere aipatzen dituzte. Etorkizunari begira akatsak ez errepikatzea, historiaren bilakaera prozesuak eta gisa horretako ideiak ere aipatzen zituzten historia zer zen ulertzeko garaian.

5.2. HISTORIAREN ZAMA GAUR EGUN:

Hemen, segidan, institutuko ikasleek historiak gaur egunean duen eragin eta presentziaz emandako erantzun eta azalpenak:

a) Klasea eman ez nien ikasleen ikuspegia:

Oro har, saioa eskaini ez genien ikasleek erantzun dutenaren arabera historiak gaur egungo munduan, haien herrian eta haien testuinguruan eragin handia du. Hala ere, familiarengan eta norberarengan historiak duen zama eta eragina ikasle askok ez dute antzematen. Bestalde, zenbaitetik historiak beren familiarengan duen eragina eta hortaz, haiengan ere baduena, aitortzen dute. Esaterako, gerra zibilean Uruguaira emigratu zutenen alaba bat bada eta horrek oso argi zuen. Pentsamenduetan, norberaren izateko eran, ohituretan eta gisa horretan ere Historiak eragina duela aipatzen da.

Ikasleei indibidualki galdetzerakoan, berriz antzeman ahal izan dut gai hau ez zutela biziki hausnartzen ez eta garbi ikusten ere. Izan ere, historiak gaur egun eragina ote zuen galdetuz gero, baiezkoa erantzuten zuten. Baina prozesu historikoen eragina gaur egunean antzematea gehienei kostatu egiten zitzaien, nahiz eta gutxiengo batzuek adibideak ezartzen eta hausnartzen ongi jakin. Bereziki beren inguruaz galdetuta (familiaz, lagunak, etab.) hobeto erantzuten zuten, eta adibideak errazago ematen zituzten.

Azken batean, ikasleek badakite historiak gaur egunean eragina duela. Baina gero antzematea edota adibideak ezartzea asko kostatzen zaie.

Zuhaitz kronologikoen jardueraren kasuan, ikasleei galdetegiko jarduera proposatzean azaldu nien zertan zetzan ariketak. Hau da, norberaren familian diren eragin eta prozesuak

antzemateko. Baina galdetegia banaka isilean erantzun zutenez, hausnarketa orokorrik ez genuen burutu.

b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia:

Kasu honetan ere ikasleen erantzunak antzekoak dira. Historiaren eragina gaur egungo egoera ezberdinetan ikusten dute bai afera zein gatazka politikoetan, kulturean, gizartean, gure herrian eta herrietan, emakumeen egoeran, demografian eta zenbaitek ere familiarengan eta norberarengan eragina eta pisua duela aipatzen dute. Hala ere, oro har, adibideak emateko erraztasun gehiago zuten, jakina, klaseak landutakoarekin hertsiki lotuta baitzegoen.

Zuhaitz kronologikoen ariketaren kasuan, klasea jaso zuten ikasleetan ariketa eraginkorragoa izan zen. Klasean landu genuen ozenean, eta boluntarioen adibideak ezarriz. Gehienetan familien eraginak, edota bilakaera prozesuak ikus zitezkeen, erlijioaren kasuan adibidez. Ikasleek hausnartu zuten, oro har, historiak, haien familiaren bilakaeran eragina izan zezakeela, eta haiengan ere. Hala ere, ikasle askok historiaren prozesuaren eragina bazela ondorioztatu arren, baziren haiengan historiak eragin gutxi zuela ziotenik ere.

5.3. HISTORIAREN FUNTZIOA ETA ERABILGARRITASUNA:

Gaiaren atal zentral edo errai gisa hartu dut puntu hau. Zein da historialariaren helburua? Historiak zertarako balio du? Gizarte gisa Historiak egiten digun ekarpenaz ari gara, hortaz, baina baita indibiduoengan egin dezakeen ekarpenaz ere.

Galdetegiko galderak gai honen ingurukoak ziren. Ikusten ahal da historia gisa ulertzen duten definizioarekin oso lotuta dagoela historiaren funtzioaren eztabaida.

Hasiera batean bi puntu ezberdinetan banatu nahi nituen: historiaren funtzioa eta bestetik historiaren erabilgarritasuna gizartearentzat zein indibiduoentzat. Hala ere, ezinezkoa egin zait. Izan ere, hasteko, biziki zaila da funtzioa eta erabilgarritasuna bereiztea. Ezberdinak izan arren oso hertsiki lotuta baitaude.

Azkenik, aipatu nahi nuke ikasleei historiak haiengan, beren bizi pertsonalean zuen erabilgarritasunaz galdetzean asko kostatzen zitzaizela hausnartzea. Aunitzez aiseago erantzuten zuten gizarteari, oro har, historiak egin diezaiokeen ekarpen eta erabilgarritasunak. Hots, historiak gizartean betetzen duen funtzioa errazago antzematen zuten indibiduoetan baino.

a) Klasea eman ez nien ikasleen ikuspegia:

Historia iraganeko gertakizun gisa ulertzen dutenez, afera horiek ulertu, azaldu edota ezagutzearekin lotzen dute Historiaren funtzioa. Hiru aditz horiek izaten ahal dira gakoak: ezagutu, jakin, ulertu. Era berean, beste zenbaitek, ez gehiegik, gaur egunera iristeko aldaketa prozesua ezagutu eta ulertzea ere aipatzen dute, gizartearen bilakaera, eraldaketa jakiteko.

Beste gutxi batzuk ere Historian gertatu diren akatsak ez errepikatzeko tresna gisa ere ulertzen dute Historiaren funtzioa. Edota “kultura eta gizartea aberasteko” gisako ideiak ere ez dira falta.

Erabilgarritasunaz galdetzerakoan ere, ikasle gehienek galdetegiko aurreko galderarekin lotzen zuten. Hau da, iraganeko gertakizunak ulertu, ezagutu, jakin eta ikasteko. Anitzek erantzun dute DBHko titulua eskuratzeko, azterketak gainditzeko edota deusetarako ere balio ez ziela aipatzen zuten hainbat ikasle ere baziren.

Hala ere, erran bezala, gehienek aurreko galderari bezala erantzuten zioten: iraganeko gertakizunak, bizimodu eta biziak jakin eta ikasteko. Oso gutxik, zinez gutxik, egiten zituzten hausnarketa sakonagoak. Hala, tartean erantzun hausnartzaileagoak eskuratu ahal izan ditut: batzuek beren inguruaz hausnartzen zuten, hau da, beraien testuinguru eta inguruaren (familia etab.) bizipen eta gertaeren eboluzioa ezagutzeko, edota “nor naizen ulertzeko” gisako ideiak ere. Azken honek Historiak janzkera, ikasketak, egiten duen kirola, bere inguruaren eraldaketa prozesuen arabera aztertzen zuten.

Bestalde, zuhaitz kronologikoaren ariketa burutu zuten arren, ezin izan zuten ariketa behar bezala landu, lehen aipatu dugun bezala. Zuhaitz kronologikoak bete eta hausnartu egin zuten, baina ez zuten ozen azaldu, eta azalpen horiek ere ez zituzten idatziz eman.

Indibidualki egindako elkarrizketetan, oro har, egin ziren hausnarketak ere antzekoak ziren. Historiak iragana ezagutzeko balio zuela adierazten zuten, eta jakiteko, kultura izateko eta halako ideiak ematen zituzten.

Beraiei beren bizian zein ekarpen egiten zien galdetzerakoan 6tik batek eta beste batek erdizka soilik azaltzen zuten Historiak balio ziela haien ingurua ulertzeko. Eta oro har galdetuta, orain gertatzen zena ulertzeko ere soilik bi hauek adierazi zuten historia erabilgarria izaten ahal zitzaizela. Gainerako ikasleek historia jakite eta ezagutze hutsera mugatzen zuten.

Aldiz, behin erantzun horiek emanda, zuhaitz kronologikoaren ariketa hartzen genuenean, erlijioaren adibidea berrikusten genuen, eta horretaz hausnartu egiten zuten nire aitzinean. Ikusi ahal izan dudanez, adibide honekin hausnartzen zuten prozesu historikoek haien inguruan eragina zutela. Baita kanpokoak diren ikaskide batzuekin edota haien familiek bizitako gertakizun eta egoera ezberdinak berrikusten ere.

b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia:

Klasea jaso zuten ikasleek, iragana ulertzeko, gertakizunak eta bizimodu ezberdinak ezagutzeko, historian gertatutako akatsak ez errepikatzeko, eta gisa horretako ideiak ere aipatzen zituzten gainerako ikasleek bezalaxe. Baina, era berean, seguruenik klasean izan ziren ideia eta eztabaidengatik eta saioaren norabide eta inertziagatik beragatik, gehiago azpimarratzen zuten historiak gaur eguna ulertzeko balio zigula. Baita prozesu edo gertaera ezberdinen zergatia ulertzeko tresna gisa ere. Gertatu diren eta gertatzen diren afera eta gertaera ezberdinak nondik heldu diren ulertzeko, etorkizunari begira irtenbide ezberdinak izateko, bilakaera prozesuak ulertzeko, politika hobeto ulertzeko eta gisako ideiak ia ikasle guztiek aipatu dituzte, galdetegia pasatutako gainerako geletan baino gehiago.

Erabilgarritasunaz galdetzerakoan, berriz, gainerako geletako ikasleek bezala, bi galdera hauek bereizten ez zuten jakin, ez oso argiki behintzat. Gehien aipatzen zituzten ideiak honakoak ziren: gaur egungoa egoerak ulertzeko, gaur egungo errealitatea hobe ulertzeko, gaur egungo politika ezberdinak ulertzeko eta gaur egungo egoeren zergatiak ulertzeko, iraganaz gutxieneko ezagupen batzuk izateko, ikasgaia gaintzeko, iragana ulertzeko etab. Erantzunak jasotako saioaren inguruak izaten ziren, baina Historiak pertsonalki zertarako balio zien eta, oro har, historiak zertarako balio duen (edo balio dion gizarteari) desberdintzerako garaian ez ziren gai izaten.

Oso ikasle gutxi haustartu zuten historiak ere norbera nor den, nondik heldu den eta bere inguru hurbila historiak nola baldintzatu duen haustartzeko garaian. Hala ere, tartean, haustarketa sakonak baziren: ikasle batek aipatzen zuen bera gaur egun dagoen egoera eta bizimodua eta baita une berean beste leku batzuetan zeuden beste pertsona batzuek biziko zuten egoeraz. Hau da, inguruak pertsonari eragiten dien baldintzapenaz ari zen. Haustarketa sakonak ziren hauek, adibidez.

Zuhaitz kronologikoen ariketa landu genuenean ikasle gehiagok haustartu zuten eta aipatu zuten historiak balitekeela haien bizian, haien familian, uste baino eragin gehiago izana. Batzuk aipatu zuten prozesu ezberdinek ere eragiten zutela. Beste askok, hala ere, esaten zuten norberaren erabakia zela eta historiak eragin gutxi zuela haiengan.

5.4. HISTORIA IKASGAIAREN INTERESA:

Azkenik, institutuan ezagutu ahal izan nuen ikasleendako Historia ea erakargarria, interesgarria eta aberasgarria suertatzen ote den. Ezagun da ikasle anitzi pisua egiten zaiela Historia ikasgaia. Material eta edukia memorizatze hori astuna zaie, selektibitateko azterketarako ikasi beharrekoa adibidez, eta askok ez dute batere gustuko.

Hala ere, institutu barnetik ikusi ahal izan dugunez, ikasleek historiak ematen dien kultur aberasgarritasunaz kontziente dira, baina, maiz, ezagutza eta jakite orokor gisa ulertzen dute. Praktikan eginiko saioetan horren inguruko haustarketa buru zezaten nuen helburu, eta uste

dut lortu nuela bere neurrian. Hau da, ikasleek historiaren balioa aztertu zuten eguneroko ikasgaitik harata. Ondorioetan hausnartuko dut honen inguruan.

a) Klasea eman ez nien ikasleen ikuspegia:

Historia ezagutzearen interesa kultura orokorra izate aldera interesgarria dela adierazi zuten ikasle gehienek. Hau da, Historia ikasgaia interesgarria zaie gai ezberdinen inguruan jakite eta ezagutzeagatik. Zenbaitek azterketak gainditze hutserako soilik balio diela aipatu zuten, eta deusetarako ere balio ez diela aipatzen zuenik ere bada.

Pertsonalki 6 ikasle horiekin izandako elkarrizketetan, aldiz, ikasle gehien gehienek historia interesgarria zaiela aipatu dute. Historia ikasgaia, klasean jarraitzeko gustatu egiten zaie eta gaiak interesgarriak iruditzen zaizkie. Ikasgaia egokia dela aipatzen dute. Aldiz, ikasterako garaian ikasle erdiei inguru ez zaie gustatzen, asko baitago memorizatzeke. Prozesuak, arrazoiak eta gisakoak azaltzea, ordea, gehienei gustatzen zaie. Zentzu honetan, ikasleen erantzunek onerako harritu nindutela aitortzen dut.

b) Klasea eman nien ikasleen ikuspegia:

Emandako klase praktikoetan ez nuen Historia gai edota institutuko ikasgaiaren interesaz galdetu. Ez nuen informaziorik eskuratu honen inguruan saio praktikoetan. Hortaz, hauen informazioa ere galdetegi bidez eskuratu nuen.

Oro har, Batxilerreko ikasleek, baina zehazki saioetan parte hartu zuten ikasleek, galdetegia erantzuterakoan sakonago hartu eta hausnartu zutela ikusten ahal da. Erantzunetan Historia ikasgaiak ematen zizkien ekarpenak aipatuagoak ziren, eta erantzun negatiboak ez ziren hainbeste inondik ere. Gizartea, mugimendu ezberdinak, politika, etorkizuna eta gisako interesekin lotzen zuten haien ikasgaia.

Oro har, erantzun positibo eta sakonagoak dira. Anitzek ez dute maite izanen Historia ikasgaia, baina ikasgai honek egin diezazkiekeen ekarpenetan gehiago hausnartu dute galdetegia erantzuterakoan.

6. ONDORIOAK:

Historiografian historiaren funtzio eta erabilgarritasunaren gainean izan diren eztabaidak eta ikasleek eman zizkiguten erantzunak aztertuz ondorio batzuk jaso ditut. Ondorio hauek historiak zertarako balio ote duen ezagutzean dautza. Hau da, ikasleen erantzunak eta marko teorikoa alderatzen ditut historiaren funtzioa eta erabilgarritasunak ezagutze aldera. Zein

funtzio ezagutzen dituzte ikasleek? Zeintzuk iruditzen zaizkie erabilgarriak? Marko teorikoan, marko kontzeptuarean, finkatzen dira nire ondorio hauek.

Bigarren plano batean, berriz, ikasle hauek historia zein ikuspegitik aztertze duten ondorioztatzen ahalegindu naiz bi ondorioren bidez. Izan ere, historiari esleitzen dizkioten funtzioak ikuspegi horrekin lotuta daude.

Azkenik, ondorioak adierazi aitzin, aipatu behar dut esku tartean izan dudana lagina, mugatua dela historiaren didaktikaz, historiaren ezagutzaz eta, oro har, institutuarekin adin hauetako ikasleek zein iritzi dituzten aztertzeke. Hau dena kontuan hartuta, eta bereziki didaktikaz ditudan ezagutza apurrak direla eta, batetik, eta lagina institutu bakarrera mugatzen dela eta, ondorioak orokortzeak bere arriskuak izan ditzakeela kontziente naiz. Hortaz, hurrengo ondorioak hurbilketa gisa plazaratu nahiko nituzke

6.1.- HISTORIAREN FUNTZIO ETA ERABILGARRITASUNAZ:

a) Iragana ezagutzea:

Ikasleek masiboki Historiaren funtzioetatik iragana ezagutzea edota ulertzea jotzen dute. Esan behar da, korrante historiografiko gehienek ere ildo honi eutsi diotela. Marrou-ren ikuspegia nagusi da, beraz: Historia iraganaren ezagutza da⁵⁸.

Ikerketan ikusten ahal da nik klasea emandako ikasleek beste funtzio eta erabilgarritasun batzuk aipatu dituztela, nahiz eta historiaren funtzio hau ere aipatu duten. Klaserik jaso ez duten ikasleek, ordea, argiki, funtzio hau aipatzen zuten.

Historia iraganaren ezagutzarekin lotzearen ikuspegi bakan honek, ordea, kritika ugari jaso ditu, gehienbat XIX. mendetik aurrera sortu izan diren zenbait korrante historiografikoetatik. Hala ere, hein berean, historiak duen funtzio hau ere aitortu eta azpimarratu behar da. Baina, oro har, badirudi institutuarekin ikasleek transmititzen dituzten erantzunak ere ikuspegi nahikoa mugatua dutela. Hau da, iragana ezagutu, ulertu eta ondarea mantentzea jotzen dute ikasle gehienek Historiaren funtzio eta betebehartzat. Historia horretarako antzematen dute erabilgarri.

Ikerlanean zehar aipatu ditugu Herodotoren hitzak tartean, iragana eta oroimena atxikitzea zituen helburu, ezagutzak mantentzea. Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko historialarientzat helburua hori zen, historiaren funtzioa iraganaren berri ematea zen. Positibistek, edota historizistek, ideia hori hedatzen zuten. Historia objektiboa, iturri ofizialetan oinarritua, metodologia bati jarraikiz; baina interpretazio eta hausnarketa gabea. Historia iraganaren ezagutza huts gisa proposatzen zuten.

⁵⁸ MARROU, H., 1954. *De la connaissance historique*. Le Seuil argitaletxea. Paris.

Goethe eta Nietzsche-ren ekarpena, kasu honetan, aipatu bezala, biziki interesgarria antzematen dut. Historiaren funtzioa ikaste eta jakite hutsarekin lotzea aspergarria bezain gorrotagarria litzatekeela zioten. Eta hori da institutuetan ikasle askori gertatzen zaiona. Horregatik, baliteke “historiak ez du deusetarako balio”, “gainditzeko balio du”, “titulua eskuratzeko” edota horrelako erabilgarritasunak antzematea soilik ikasleek.

Kunderak bere lanetan adierazten duen bezala, iraganaren ezagutza zientifikoa bilatu da. Baina iraganaren ikuspuntu bakar bat, iragan bakar bat finkatu nahi izanda. Beste ikuspuntu batzuetako historialariek oraina eta geroari garrantzia gehiago eman diote. Historiaren funtzioari dagokionez, talka hori badela iruditu zait.

Hala ere, historiak beste funtzio batzuk izan ditzakeen arren, eta beste horiek ere nabarmendu behar diren arren, ezin da ukatu historiaren funtzioetako bat iraganeko errealitateak zirenak ezagutzea dela. Gizakia beti izan da izaki kurioa eta horrek ere jakin min hutsa sortu izan du.

Luis Villorok bere idatzietan historiaren zenbait funtzio aipatzen ditu ere, baina azaltzen du ezin dela historiaren iragana ezagutzeko funtzioa ere baztertu. Egiten dituen azalpenen artean dio gizakia ere baduela interes purua iraganeko gizarte taldeen antolaketan, bizimodua etab. ezagutzeko. Historia kolektiboetan zentratzen da, literaturak indibiduoetan egiten duen bezalaxe, kasu honetan⁵⁹.

Iraganaren ezagutzari dagokionez, ikuspegi posmodernistak hori ezagutzeko zailtasunak adierazten zituen errealitatea bera ezagutzea zaila zen bezalaxe. Richard Rortyk adierazi zuen ez dagoela egia esentzial edota errealiterik⁶⁰. Ikuspegi posmodernista hauek, adibidez, ez dute bat egiten nik defendatutakoarekin. Hauen berri ere eman nahi dut, hausnarketa eta ondorioztatze hau pertsonala dela adierazteko.

Posmodernisten ideien artean historialariak errealitatea aurkitu eta ezagutzeko baino, historialariak historia bere neurrira eraikitzen zutela aipatzen da. Hau da, historia partikularrak non historialari bakoitzak bere egia eraikitzen duen, bere neurrira, guztizko subjektibotasunarekin. Iraganaren ezagutza, baztertzen dute horrela⁶¹. Korrante hauek eta ideia hauek ere izan badira, jakina.

b) Oraina ulertzea:

Bestalde, ikerketan ikusi ahal izan dugu klasea eman nien ikasle gehienek historiaren erabilgarritasunaren artean oraina ulertzeko erabilgarritasuna aipatzen zutela. Gainerako ikasleek ere, klaserik eman ez nienek, aipatzen dute, baino askoz ere neurri apalagoan.

⁵⁹ PEREYRA, C.; VILLORO L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 36-38. orriak.

⁶⁰ RUIZ-DOMÈNEC, J. E., 2006. *El reto del historiador*. Península argitaletxea. Bartzelona. 48-49. orriak.

⁶¹ HISTORIA A DEBATE. <<http://www.h-debate.com/>> [2014/06/12an kontsultatua] “Historia y Postmodernidad” eztabaida. Efrain Nuñez Huallpayunca. 2005/01/11an argitaratua.

Hortaz, iruditzen zait ikasleak zein indibiduoak ohartarazi behar direla historiak oraina ulertzeko duen balioaz. Izan ere, ikasle asko eta asko ez dira kontziente honetaz. Beste batzuek historiak oraina ulertzeko duen garrantzia aipatzen dute. Baina bada beste ikasle anitz ideia hori ez dakusana.

Luis Villorok azaltzen duenez, historiak gaur egungo gure egoera ulertzeko interesa du. Horretarako da baliagarria⁶². Luis Gonzalez-ek ere gauza bera dio: *“el papel de explicar el presente y predecir las posibilidades del suceder real”*⁶³.

Fontanak ere ideia hau aipatzen du, beti etorkizunari begira du ezarrita bere begirada, baina historiak oraina ulertzeko duen garrantziaz ere idatzi du: *“Uno de los mayores retos que se nos presentan hoy a los historiadores es el de volver a implicarnos en los problemas de nuestro tiempo como lo hicieron en el pasado aquellos de nuestros antecesores que ayudaron con su trabajo a mejorar, poco o mucho, el mundo en que vivían”*⁶⁴.

Nire ustez, historiaren erabilgarritasunaren gaineko hausnarketak sustatu beharko lirateke historia edota Gizarte Zientziak bezalako ikasgaietan. Historiak oraina ulertzeko eta horrela gizartean nola parte hartuko genukeen hausnartzeko balio beharko liguke.

Erabilitako informazio iturri ezberdinen bidez ikusi ahal izan dugu ere zenbait ikaslek, klaserik eman ez nienen artean, oro har, kostata antzematen dutela historiaren interesik gaur egungorako. Hau da, historia ez da orainarekin lotzen. Ikasle gutxi batzuek soilik aipatzen dute hori. Nire ustez, ikasle guztiek argi eduki beharko luketen kontua litzateke.

Bestalde, ikasleekin egindako jardueren artean, zuhaitz kronologikoen ariketak ikasleengan hausnartzeko balio izan duela iruditu zait, eta historiak gaur egun eta beraiengan, ikasleengan edota edozein pertsonengan eragina duela ohartarazteko baliagarria iruditu zait.

Durkheim soziologoak ere oraina ulertzeko iragana ezagutu beharra aipatzen zuen. C. Pereyra Boldrini marxistak eginiko ekarpenak ere ildo berekoak ziren. Iraganaren azalpenak oraingo eztabaidetarako bideratuak direla usu ohartarazten gintuzten zenbait korronteetako historialari ezberdinek.

Hau guztiz lotuta dago historiaren funtzioaren gaiarekin. Izan ere, historialari andana batek adierazten duten bezala, historiaren interesa orainean dago: *“La historia nacería, pues, de un intento por comprender y explicar el presente acudiendo a los antecedentes que se presentan como sus condiciones necesarias. En este sentido, la historia admite que el pasado da razón del presente; pero, a la vez, supone que el pasado sólo se descubre a partir de aquello que explica: el presente”*⁶⁵.

Baina era berean, nik defendatu dudana ikuspegi honi baldintzak ezartzen dizkioten korronte eta historialariak ere badirela aipatu behar da. “Historia a Debate” giroan, esaterako,

⁶² PEREYRA, C.; VILLORO L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 36. orria.

⁶³ Ibidem. 56. orria.

⁶⁴ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 353. orria.

⁶⁵ PEREYRA, C.; VILLORO L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 38. orria.

momentuan bertako eta oraineko historia bereizten dituzte. Beraz, momentuan bertako historia hori kazetaritzaren eta soziologiaren lana dela adierazten dute zenbait historialarik⁶⁶. Eztabaida hauetan, ordea, beste zenbait historialarik "Historia Inmediata" deitua landu beharra ere azpimarratzen dute. Historia soziala landu nahi bada eremu horretan sartu beharra argudiatzen dute azken hauek: *"En resumen, se trata de estar más próximos a nuestras sociedades, y uno de los caminos hacia esta responsabilidad social del historiador es la Historia Inmediata, aspecto que, como decíamos, 'Historia a Debate' ha sabido canalizar en su quehacer diario"*⁶⁷.

c) Historia legitimazio tresna:

Historiaren funtzio legitimatzaile hau ez da aipatu ikasleen erantzunetan. Ez klasea emandakoen artean, ez eta klaserik eman ez nienen artean. Nik nire klaseetan aurkeztu ez nuen funtzioa da hau, eta ikasleen erantzunetan ere ez da aipatua izan. Historiografian, ordea, biziki landua dela ikusten ahal da. Honekin ikusten da ikasten den historia zilegitzat jotzen dela. Horregatik, interesgarria iruditu zait hausnarketa kritikoagoak aztertzea.

Horien artean, Carlos Antonio Aguirrek ere bere *Antimanual del mal historiador* liburuan irabazleen historia lantzeari egin izan dio kritika. Historian dominatu dutenek idatzitako historiari jarraitu zaio.

Bestalde, lan honetan zehar aipatu ditugun Fontanak egindako kritikak zinez interesgarriak iruditu zaizkit historiaren funtzio honen inguruan. Mesopotamiatik, idazkera azaldu zenetik, gaur egungo garaia arte Historiak momentuko egoera legitimatzeko balio izan du, edota zehazkiago esanda, momentuko garaileen interesak legitimatzeko.

XIX. mendera arte esaten ahal da historialariek beren lanei funtzio hori eman dietela. Legitimizatzeko balio izan dute. Horretarako erabili izan da historia. Aldiz, XIX. mendetik aitzina korrante ezberdin eta kritikoak sortu ziren; era ezberdinetako historialariak aipatu ahal izan ditugu horregatik.

Historiak bi funtzio dituela bereizten du Villorok. Biak oraingo momentuan ditugun interesari dagozkie. Batetik, errealitatea ezagutzea, gure ekintza eta proiektuak horri egokitzeko. Hau interes kolektiboa da, "iragana ezagutzea", errealitatea ezagutzea. Hain zuzen ere, aurrez aipatu dugun ataleko ideia litzateke. Bestetik, berriz, gure egoera eta proiektuak justifikatzea. Eta hori gure talde mugatu baten interesari dagokio⁶⁸. Azken kasu hauen adibide bezala, Historiak herriak sortzeko balio izan du: Israel, Grezia, Erromatik gaur egungo nazionalitateak eratu arte. Proiektu kolektiboak justifikatzeko balio du historiak.

⁶⁶ HISTORIA A DEBATE. <<http://www.h-debate.com/>> [2014/06/12an kontsultatua] "¿Es posible una historia inmediata?" eztabaida. Jaume Cirer. 2014/06/01ean argitaratua.

⁶⁷ GUERRERO, P., 2011. "Historia a Debate" y la historiografía del siglo XXI. 327. orria.

⁶⁸ PEREYRA, C.; VILLORO L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 41. orria.

d) Etorkizunari begira baliagarria:

Historiaren funtzioari dagokionez, gure lagin mugatuko ikasle zenbaitek errepikatu dute bai galdetegian erantzuterakoan, klase praktikoan, zein elkarrizketetan historiak iraganeko akatsak ez errepikatzeke balio duela. Historiografian zehar usu aipatutako ideia izan da hau, ikusi ahal izan dugunez.

Baina era berean, iruditzen zait, historiak orainean duen eragina ere zeharka aipatzen dutela ikasleek ideia honen berri ematean. Ez dira argudiatzeko gai izaten, baina ideia honekin historia amaigabea eta bizirik, etengabeko eraldaketan den zerbait dela ikusten dutela iruditzen zait. Ikasleen hausnarketa hauek interesgarriak iruditu zaizkit oso. Hala ere, arrazoitzerako garaian zailtasun gehiago antzeman dizkiet ikasleei.

Historiaren funtzioaren ikuspegi hau defendatzen duten ideien artean Fontanaren esaldietako bat antzeman dut deigarri: *“ayudar a la tarea colectiva de reconstruir una visión del pasado que pueda utilizarse como fundamentación de un nuevo proyecto de futuro, acorde con nuestras necesidades y con nuestras aspiraciones”*⁶⁹.

Marxistek ere etorkizuneko aldaketak ziklo batzuei jarraiki aurreikus zitekeela aipatzen zuten. Durkheim-ek, berriz, aipatzen zuen etorkizuna aurreikus zitekeela. Hortaz, ikasleek duten ideia hau ere historiografiako korrante batzuetatik heldutakoa dugu.

Honekin hausnartu nahi dut historiak balio handia duela ere etorkizunean, etorkizun hurbil zein urrunean, gizarteak har ditzakeen jarrera eta norabideak ulertu eta kudeatzeko. Fontanak honela azaltzen du ideia hau:

*“Hemos de elaborar una visión de la historia que nos ayude a entender que cada momento del pasado, igual que cada momento del presente, no contiene sólo la semilla de un futuro predeterminado e inevitable, sino la de toda una diversidad de futuros posibles”*⁷⁰.

Ikasleei, ikasle lagin honi erreparatuta, ohartarazi behar zaie historia ezberdina izaten ahal zela. Hau da, bilakaera ezberdina izan zezakeela, eta etorkizunak, hortaz, bilakaera bat baino gehiago har ditzakeela hartuko diren hautuen arabera. Etorkizun hori determinatuta ez dagoela eta, historiak interesa eragin behar digula aipatzen du Nietzschek: *“Un cinismo que justifica la marcha entera de la Historia e incluso del desarrollo total del mundo para el propio uso del hombre moderno (...): todo tuvo exactamente que ocurrir como justo es ahora y de ningún modo podría haber sido el hombre diferente a como ya es; frente a este imperativo, nadie puede rebelarse”*⁷¹.

Kasu honetan ere, gaur egungo korronteen eta ikuspegiaren artean, historiaren funtzio edota erabilgarritasun honekin ez dute denek bat egiten. Neopositibistek esaterako, esperientzia eta bizipenaren bidezko ezagutzari ematen diote garrantzia. Baina horrekin ez

⁶⁹ FONTANA, J., 1982. Historia. *Análisis del pasado y proyecto social*. Kontraportadan.

⁷⁰ FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. 358. orria.

⁷¹ NIETZSCHE, F.W., 2003. *Sobre la utilidad y los perjuicios de la historia para la vida*. 115. orria.

dute aurreikusteko aukerarik esleitzen. Ezagutu soilik errealitatea egiten da. Korrante asko ere, gehienbat XIX. mendeko marxistak, oso deterministatzat jo izan dira.

e) Kolektiboa eta indibidua ulertzeko tresna:

Lan honetan ikusi ahal izan dut ikasleek historia giza kolektiboarekin lotzen dutela. Hau da, ikasleek historiaren interesak, funtzio eta erabilgarritasunak gizarteari esleitzen dizkiote. Nik, horrez gain, klaseetan indibiduoarengan izan dezakeen eragina ere azpimarratu nuen. Horrela, klase emandako zenbaitek, gutxik, ideia honen berri eman zidaten.

Historiak indibiduoarengan izan dezakeen erabilgarritasunaz ere ikerketa mugatuak egin direla ikusi ahal izan dugu historiografian.

Nire ustez, interesgarriak suertatzen dira Fustel de Coulanges-en gisako historialariek historiaren baliagarritasun eta funtzioaz idatzitako ideiak. Izan ere, historiaren ikuspegia nahiko mugatua dute ikasleek. Batxilergoan hausnarketa sakonagoak antzeman ahal izan ditut, hala ere.

Aipatutako azken historialari honek giza arima proposatzen zuen historiaren aztergai gisa, baina historia sinismenak, pentsamenduak, hausnarketak etab. aztertzeke balio zuela aipatzen zuen; momentu, garai eta leku ezberdinak ulertzeko, azken batean.

Honelako hausnarketak biziki konstruktiboak iruditzen zaizkit, eta historia orain eta hemen indibiduo guztiontzat erabilgarria dela ohartarazteko gai iruditzen zait Fustel de Coulanges-en hausnarketa.

Darnton-en ideiak ere biziki interesgarriak iruditu zaizkit. Historia Kulturala delako korronteko kidea da. Aipatzen duenez, munduaren ikuspegi ezberdinak ulertzeko ezinbestekoa da historia. Hausnarketa mentalak, sinboloak etab. ematen ditu adibidetzat historialari honek. Horiek behar bezala ezagutu eta ulertzeko balio du historia adibidez. Eta horrekin batera norbanakoak zein gizarte talde ezberdinek duten munduaren ikuspegia.

Bai Fustel de Coulangesen zein Darnton-en hausnarketak biziki erakargarriak iruditzen zaizkit. Historia iraganarekin lotua eta uztartua dela argi dago. Baina historia erabilgarria da askoz ere gauza gehiagotarako, eta tartean proposatzen dituzten ideietarako: bizi duten egoera materiala ulertzeko, bai familiako egoerak eta beste hainbat afera.

Honekin lotuta, ikasleen hausnarketa batzuk antzeman ahal izan ditut iturri ezberdinetan, eta bereziki klasea emandako ikasleen artean. Historia iragana ezagutzeko baliagarria izateaz landa, saioa jaso zutenek historia "tresna" gisa azaltzen zuten neurri batean. Tresna horrek aipatu ditugun gauza ezberdinetarako balio duelarik: iragana ezagutzeko, gaur egungoa ezagutzeko eta beste. Gizarteari, kolektiboari balio dion tresna gisa aipatzen zuten ikasle batzuek.

Baina zinez gutxi aipatzen zuten historia erabilgarri zela beren indibiduoarentzat. Ikasleek arlo hori ikusteko zailtasunak dituztela nabari da. Baliteke aferak oso abstraktuez ari garelako izatea. Beraz, interesgarria irudituko litzaidake hausnartzea ea historia guk uste baino presenteago ote den gure bizietan eta guk uste baino gehiago baldintzatu duen eta baldintzatzen duen gure ingurua.

Hala ere, badira indibidua ulertzeko historiak balio ez duela dioten historialariak ere. Luis Villorok adierazten du iragana aztertzea garamatzana ez direla interes indibidualak. Norbanakoaren iragana ezagutzeko biografiatara edota analisi psikologikotara joko dugu. Bere hitzetan, historia aztertzea garamatzana indibiduotik landakoa da, behar kolektiboei dagokie⁷².

Baina era berean beste ildo bati eusten dio: *“(la historia sirve) para comprender, por sus orígenes, los vínculos que prestan cohesión a una comunidad humana y permitirle al individuo asumir una actitud consciente ante ellos”*⁷³.

Nik bat egiten dut ideia hauekin. Hilda Noemi Agostino historialariak egindako hausnarketak guztiz partekatzen ditut ikerketa hau burutu ondoren: *“Las identidades individuales se completan con la identidad social, es más no lo hacen sin ella. Uno es quien es por pertenecer a determinado grupo social con ciertas características. Hacer historia es encontrar explicaciones a los procesos en los cuales esos grupos humanos intervienen”*⁷⁴.

Beste historialari batzuek argudiatzen dute historia behar dugula bizitzako adibide bezala eta gure bizitzako ekintzak burutzeko eredu eta argudio bezala⁷⁵. Nietzschek ere indibiduo gisa historiaren beharra dugula aipatzen du: *“necesitamos la historia para la vida y para la acción (...)”*⁷⁶. Era berean, Nietzschek adierazten du gizakiak usu gibelera, iraganera begiratzen duela oraina ulertu eta etorkizuna intentsitate gehiagoz bizitzeko. Historia ez da ezagutza tresna huts bat bere ustez, baizik eta bizitzaren ezagutzarako tresna⁷⁷.

f) Historia ez da denontzat:

Historialari ezberdinen lanak irakurriz, indibiduo eta gizarte talde bakoitzak historiari antzematen dion erabilgarritasuna berdina ez dela ikusi ahal izan dut. Azken batean, historia ez

⁷² PEREYRA, C.; VILLORO, L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 42. orria.

⁷³ Ibidem. 46. orria.

⁷⁴ HISTORIA A DEBATE. <<http://www.h-debate.com/>> [2014/06/12an kontsultatua] “Para qué estudiar historia” eztabaida. Hilda Noemí Agostino. 2002/05/10ean argitaratua.

⁷⁵ PEREYRA, C.; VILLORO, L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* 147. orria.

⁷⁶ NIETZSCHE, F.W., 2003. *Sobre la utilidad y los perjuicios de la historia para la vida*. 38. orria.

⁷⁷ Ibidem. 49. orria.

dugu beharrezkoa bizitzeko Ricardo Herrera Blanco historialariak dioenez; historia ez da denentzat⁷⁸.

Hala ere, hausnarketa sakonetara eraman nauena izan da garrantzitsuena historia ikastea baino, historia egitea dela. Hau da, historia aztertzea. Eta hori izan beharko litzateke agian institutuetan, historia ikasgai, egin beharko litzatekeen ekarpena: *“Investigar, analizar, comprender y luego explicar porque esto sucede es un importante paso para luego poder saber que cambiar y si es posible- y creo que lo es - comprometerse con esos cambios”*⁷⁹. Jakina, ez da inondik ere baztertu behar historia irakastea eta ikastea, baina horri historia ulertzeko eta lantzeko aukera gehitu beharko litzaioke. Ikasleentzat interesgarria izan liteke, eta bide batez, aurrez aipatu dugun hausnarketa eta iritzi kritikoa landuko litzatekeela iruditzen zait. Ezagun da Bigarren Hezkuntzan ideia hau hainbat eta hainbatek aplikatu izan dutela.

Historia denok egiten dugu, historia bizitzen egiten da. Baina historian ez dugu denok interes berdina gainerako arloetan bezalaxe. Eta ikasgeletan ere, interes ezberdinak ikus daitezke. Hala ere, ikerlan honetan ondorioztatu dut historia erabilgarria dela denontzat. Nahiz eta batzuek beste tresna batzuk nahiago dituzten erabili bizitzeko. Historia tresna horietako bat izan daiteke berarentzat nahi duenarentzat.

6. 2. HISTORIA ULERTZEKO IKASLE HAUEN IKUSPUNTUA:

a) Historia politikoaren nagusitasuna:

Lehen ondorio bezala institutu honetako ikasleek historian arlo politikoa azpimarratzen dutela izanen litzateke. Alde batetik normala izan liteke, izan ere, testu liburuetan, nagusiki, ildo horri lotuta baitaude, nahiz eta bigarren maila batean arlo sozio-ekonomikoari uztartuta ere egon.

Ikasleek beren erantzunetan gertakizunak aipatzen dituztenean, gehienetan, gertakizun politikoez ari dira, saioa eman genuen ikasleekin jardun genuenean ikusi ahal izan genuenez. Bai gertakizun militarra, eboluzio politikoak, etab. Ekonomia, gizartea, kultura, erlijioa etab. bigarren maila batean aipatzen dira.

Horren erakusgarri dugu ere aipatzen dituzten pertsonaiak eta ezagun dituztenak Historia politikoarekin lotuta daudenak izatea, elitearen Historia litzatekeena finean, hau da, denboran zehar nagusiki idatzi den Historia. Ikasleei indibidualki 6 pertsonaia historiko aipatzeko galdetuta, eman zituzten izen gehien gehienak garaikideak eta politikoak ziren. Hau biziki adierazgarria iruditu zitzaidan. Gainera, Antzinaroko, Erdi Aroko edota Aro Modernoko izenak aipatzeko galdetuta ez ziren izenik emateko gai.

⁷⁸ HISTORIA A DEBATE. <<http://www.h-debate.com/>> [2014/06/12an kontsultatua] “Para qué estudiar historia” eztabaida. Ricardo Herrera. 2001/01/23an argitaratua.

⁷⁹ HISTORIA A DEBATE. <http://www.h-debate.com/> [2014/06/12an kontsultatua] “Para qué estudiar historia” eztabaida. Hilda Noemí Agostino. 2002/05/10ean argitaratua.

Arlo teorikoarekin lotuz, baliteke korronteen eragina antzeman ahal izatea irakaskuntzan. Horretarako gehiago ikertu behar balitz ere, iruditu zait ikasle askok historia arlo politikotik soilik ulertzen dutela. Hau historiografiako korronteetan antzemandakoarekin alderatu nahi nuke.

Izan ere, korronte historiografikoetan ikusi dugunez, Antzinaroan, Erdi Aroan, Errenazimentuan eta Ilustrazioan landu den historia ia erabat politikoa izan da. Erdi Aroko idatzietan kutsu erlijiosotik lantzen da, baina botere katolikoek idazten dute finean, historia lantzerako garaian.

XIX. mendetik aurrera Michelet, marxistek, Annales eskolako belaunaldi ezberdinek eta historiaren krisi garaian eratutako korronte ezberdinek gai aldaketa edota berritzea ekarri zuten. Historia totala lantzeko interesak aipatzen dira Michelet eta Annalesekoen eskutik.

Historia totalagoa lantze honek Historiaren funtzioa ere aldatzen du. Laginean izan ditudan ikasleek, ordea, nahiz eta gizartea, bizimodua, kultura etab. historiarekin lotzen duten, oso nagusiki historia ikuspegi politikotik ulertzen dute, eta horrek mugatu egiten du historiak beraiei zein gizarteari egunerokoan egin diezaiokeen ekarpena eta historiak izan lezakeen funtzioa.

Egia da, era berean, gizartea, familia, bizimodua, kultura eta gisako kontzeptuak aipatzen dituztela ikasleek. Eta hori, beraz, Annales eskolaren mugimenduaren gisako historialarien eraginagatik izan liteke. Gizarte eta arlo soziala zein kulturala ere ikasleen eremura iristen ari dira. Ikasten duten gehiena Historia politikoa izan arren, beste Historiaren zati hori ere aitortzen badakitela ikusi ahal izan dugu. Izen batzuk ere aipatu dituzte, tartean, Martin Luther King, Einstein edota besteren bat.

Aldiz, Historia ekonomikoa ez du ikasle batek berak ere aipatu. Ez klasea izan ez zutenek, ezta dutenek ere. Horrek erakusten du Historia gertakizun politikoeekin, edota arlo sozialarekin lotzen dutela. Ez mundu ekonomikoarekin eta harrek lotzen duen munduaren eboluzioarekin. Hortaz, historiografia marxistak defendatzen zituen ideiak, esaterako, ez daude batere murgilduta ikasleen artean. Egia esan, eskaini nituen bi klaseetan ahalegindu nintzen arlo sozialak, kulturalak, ekonomikoak etab. azpimarratzen arlo politikoearekin batera. Baina klasea eman nien ikasleek zein gainerakoek arlo ekonomikoa ez zuten aipatzen. Horren arrazoa ezagutzeko ikerketa landu beharko nuke, baina ondorio bezala erantzunetan ekonomia ez aipatzea azpimarratu nahiko nuke, lagin honi dagokionez.

Berdina esaten ahal litzateke sinesmen, ideologia, erlijio eta beste hainbat gairen inguruan. Historia, lehen instantzian, gertakizun zehatzekin lotzen da, datuekin. Ez pentsamoldeen eboluzioan esaterako. Egia da ere erlijioa, kulturak, bizimoduak, etab. ere historiarekin lotzen dituztela ikasleek hori zehazki galdetuz gero. Baina zuzenki hitz horiek aipatu ezean, haiek gerrak, politika eta gisako hitzak aipatzen dituzte.

b) Historia: memorizatzea vs azaltzea:

Ikasleek iragana ezagutu eta bereziki “ulertu” aipatzen dutenean, aditz horren gibelean kausak eta ondorioen ulertzea dagoela pentsatzen dut. Baina nire irudiz, ikasleek ez dute historia kausen eta ondorioetan bilakatzen den prozesu bezala ikusten. Gertaera bakanak bezala ikusten dute.

Elkarrizketa indibidualetan, klase praktikoetan eta galdetegian jasotako informazioa konfirmatu zait neurri batean. Hau da, ikasleek ez dituzte aise identifikatzen prozesu historikoak. Ez dituzte kulturalak, sozialak, politikoak, erlijiosoak edota beste era anitzetako mugimendu edota bilakaerak erraz antzematen. Kostatu egiten zaie. Hala ere, nire lagina eta ikerketa mugatuegia da ondorio orokorrak jaso ahal izateko arlo honi dagokionean. Hortaz, nire laginari buruz hausnartzen dut.

Aurrekoaren karira, M^a del Carmen Leal historialariak dio: *“entiendo que muchos de nuestros alumnos no encuentran interés por una cosa que les es presentada como algo ya ‘cocido’, hecho”*. Baina M^a del Carmen Lealek segitzen duenez, nahiz eta alternatibak, ikuspegi berriak etab. aurkeztu, ikasleek bide errazena hautatzen dute. Horrek memorizatze ikasgaia bilakatzen du historia⁸⁰.

Bide horri eustea garrantzitsua iruditzen zait, eta ikasleak ohartarazi behar dira historia ez dela memorizatze irakasgai bat, baizik eta prozesuak direla bizirik diren prozesuak, kausa eta ondorio batzuekin. Nire ustez, hori sustengatu beharko litzateke, eta azalpen eta hausnartze gaitasunaren garrantziaz ohartarazi ikasleak.

Polibio historialari erromatarrek Historiaren funtzioaz aipatzen du aferak noiz, nola eta zergatik gertatu ziren azaltzeko balio duela historiak. Carr idazle marxistak ere, esaterako, aipatzen du historiak zergatiak ulertzeko balio duela. Institutuetan indar gehiago egin beharko litzateke nire ustez arlo honetan, nahiz eta zaila den hori sustatzea.

c) Ikasleen interesa:

Aitortu beharra dut nire hastapeneko ikuspegia aski pesimista zela ikasleek historiaz zuten zaletasun edota ukapenaren aurrean. Uste baino ikasle gehiagok gustuko dute historia. Ikasgaia ikastea, jakina ez, baina gaia bera bai. Galdetegietan zein elkarrizketa indibidualetako emaitzetan ikusi ahal izan dut hau. Hala ere, ondorio honetan ez dut gehiago sakondu nahi. Erabilitako lagina mugatua baita bai institutu bakarrean egindakoa delako eta hiru mailatan aplikatu baitudalako. Hortaz, orokortzeko arriskua legoke. Baina hasieran nuen ikuspegi pesimista hori alboratu dit.

⁸⁰ HISTORIA A DEBATE. <<http://www.h-debate.com/>> [2014/06/12an kontsultatua] “Para qué estudiar historia” eztabaida. M^a del Carmen Leal. 2001/01/29an argitaratua.

7. BIBLIOGRAFIA:

- AGUIRRE, C.A., 2002. *Antimanual del mal historiador o cómo hacer una buena historia crítica*. Ediciones Desde Abajo. Madrid.
- AGUIRRE, C.A., 1996. *Braudel y las ciencias humanas*. Literatura y Ciencias argitaletxea. Bartzelona.
- AROSTEGUI, J., 1995. *La investigación histórica: teoría y método*. Crítica argitaletxea. Bartzelona.
- BERDIAEV, N., 1979. *El sentido de la historia*. Encuentro Ediciones. Madrid.
- BLOCH, M., 1999. *Historia e historiadores*. Ediciones AKAL. Madrid.
- BOCCHI, G. and CERUTI, M., 1994. *El sentido de la historia: la historia como encadenamiento de historias*. Editorial Debate. Madrid.
- BURKE, P., 1991. *Formas de hacer historia*. Alianza argitaletxea. Madrid.
- CAMPIONE, D., 2002. *Argentina. La escritura de su historia*. Centro Cultural de la Cooperación. Buenos Aires.
- CARR, E. H., 1983. *¿Qué es la Historia?* Editorial Ariel. Bartzelona.
- CHARTIER, R., 2007. *La historia o la lectura del tiempo*. Gedisa argitaletxea. Bartzelona.
- DARNTON, R., 1998. *La gran matanza de gatos. Y otros episodio sen la historia de la cultura francesa*. Fondo de Cultura Económica. Buenos Aires.
- DOSSE, F. and MORATO I PASTOR, F., 1988. *La historia en migajas*. Edicions Alfons el Magnànim. Valencia.
- DUMOULIN, O., 2003. *Le rôle social de l'historien. De la chaire au prétoire*. Bibliothèque Albin Michel. Paris.
- DURKHEIM, E., 1938. *L'évolution pédagogique en France*. Presses Universitaires de France. Paris.
- EAGLETON, T., 1998. *Las ilusiones del posmodernismo*. Paidós argitaletxea. Buenos Aires.
- FEVBRE, L., 1974. *Combates por la historia*. Ariel argitaletxea. Bartzelona.
- FONTANA, J., 2001. *La historia de los hombres*. Crítica argitaletxea. Bartzelona.
- FONTANA, J., 1982. *Historia. Análisis del pasado y proyecto social*. Crítica argitaletxea. Bartzelona.
- FUSTEL DE COULANGES, N.D., 1864. *La cité Antique*. Champs classiques. Paris.
- GEMELLI, G., 2005. *Fernand Bruadel*. Universitat de Valencia. Servei de publicacions. Valentzia.

- GUERRERO, P., 2011. "Historia a Debate" y la historiografía del siglo XXI. Universidad de Santiago de Compostela. Compostela.
- KUNDERA, M., 1991. *El libro de la risa y el olvido*. Seix Barral argitaletxea. Bartzelona.
- LE GOFF, J., 1991. *El orden de la memoria. El tiempo como imaginario*. Editorial Paidós. Bartzelona.
- MARROU, H., 1954. *De la connaissance historique*. Le Seuil argitaletxea. Paris.
- MASTROGREGORI M., 1995. *El manuscrito interrumpido de Marc Bloch. Apología para la historia o el oficio de historiador*. Fondo de cultura económica. México.
- MICHELET, J., 1841. *Histoire de France*. Bibliolife argitaletxea. Paris.
- MORADIELLOS, E., 1999. *El oficio de historiador*. Siglo XXI de España.
- NIETZSCHE, F.W., 2003. *Sobre la utilidad y los perjuicios de la historia para la vida*. Editorial Biblioteca Nueva. Madril.
- NOIRIEL, G., 1997. *Sobre la crisis de la historia*. Universitat de València. Madril.
- PAGÈS, J., 2003. Ciudadanía y enseñanza de la historia. *Reseñas de enseñanza de la historia*, Universitas APEHUN Córdoba, 1(1), pp. 11-42.
- PEREYRA, C.; VILLORO, L.; GONZÁLEZ, L., eta beste, 1985. *Historia, ¿para qué?* Siglo XXI. Madril.
- RUIZ-DOMÈNEC, J. E., 2006. *El reto del historiador*. Península argitaletxea. Bartzelona.
